

# IRAKURKETA LANTZEKO ORIENTABIDEAK

Derrigorrezko  
Bigarren Hezkuntza

<b>DOKUMENTUAREN XEDEA</b>	2. or.
<b>SARRERA</b>	3. or.
<b>JARDUERA-ARDATZAK</b>	7. or
○ <b>Sarrera</b>	8. or.
○ <b>Ikasteko irakurri</b>	9. or.
○ <b>Ikastetxea. Ikasgela</b>	10. or.
Ekintzak eta jarduerak	15. or.
○ <b>Ikastetxea. Eskola liburutegia</b>	28. or.
Ekintzak eta jarduerak	30. or.
○ <b>Familiak eta Ingurua</b>	33. or.
Ekintzak eta jarduerak	34. or.
○ <b>Irakurzaletasuna garatu</b>	38. or.
○ <b>Ikastetxea. Ikasgela</b>	39. or.
Ekintzak eta jarduerak	42. or.
○ <b>Ikastetxea. Eskola liburutegia</b>	50. or.
Ekintzak eta jarduerak	52. or.
○ <b>Familiak eta Ingurua</b>	57.or.
Ekintzak eta jarduerak	58. or.
<b>IKASTETXEKO IRAKURKETA PLANA EGITEKO GIDA</b>	61.or.
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	70. or.

## DOKUMENTUAREN XEDEA

Dokumentu honek honakoak biltzen ditu: EAEko ikasleek irakurketa eraginkorra egiteko behar dituzten gaitasunak garatzen laguntzeko proposamenak eta ikastetxeei, eguneroko jardunean, irakurketa ikasteko eta irakasteko prozesuak txertatzen laguntzeko orientabideak. Horiez gain, hezkuntzaren protagonisten, hau da, ikasleen, irakasleen eta familien zeregina bideratu eta dinamizatu nahi du, denek kohesionaturik lan egin dezaten irakurketari lotutako helburu berak lortze aldera.

Helburu hauek lortu nahi ditu:

1. Irakurtzeko gaitasunaren garapena ikastetxeek familiekin batera gauzatu behar duten lehentasunezko ekintza dela konturaraztea.
2. Irakurketaren irakaskuntza sistematizatzen eta berorri koherentzia ematen laguntzea.
3. Curriculumeko ikasgai guztien irakaskuntzan irakurketa txertatzen laguntzea.
4. Orientabideak ematea ikasleei irakurle kompetenteak izaten laguntzeko.
5. Eskola liburutegiak irakurtzeko gaitasuna garatzeko leku dinamikoak izan daitezen bultzatzea.

## SARRERA

*“Ni ez naiz nor idazten dudanagatik, irakurri dudanagatik baino.”*

*Jorge Luis Borges*

### Irakurketaren garrantzia

Testuak ulertu eta interpretatzea bizi osoan garatzen den prozesu luze eta konplexua da eta ikasteko testuinguru formaletan, hezkuntza sisteman, zein ez-formaletan, familian, lagunartean, gizartean ... gauzatzen da. Eskolari dagokio ikasleak irakurle gaituak bihurtzeko prozesuaren gidari izatea.

Tradizioz, irakurketa da ezagutzak eskuratzeko bide nagusia eta eskolan jorratzen den lehentasunezko lan esparrua. Egungo gizartean, gainera, hedadura zabalagoa hartzen du informazio eta komunikazio teknologiek sorrarazitako iraultzagatik; izan ere, egun, oso handia da eskuratu eta sortzen den informazio kantitatea eta, gainera, euskarri, kode, bide... anitzen bidez transmititzen da. Beraz, hori guztia kudeatzeak askoz zailago egiten du irakurketa. Horrez gain, egungo gizarte eleanitzak eta kulturantzak zabaldu egiten ditu, erabat, irakurketa-aukerak eta, beraz, irakurmenaren ikuspegia.

Aldagai horiengatik eta berez dituen ezaugarriengatik, irakurtzea testuaren deskodetze hutsa baino askoz jarduera konplexuagoa da eta lanketa sakona behar du alfabetizazio orokorrari erantzuteko.

XXI. mendeko gizartean, informazioaren eta komunikazioaren gizartean, ezinbestekoa da irakurtzeko gaitasuna; izan ere, ondo garatuta ez izateak norbanakoaren garapena eta lanbide garapena ez ezik, gizartean parte-hartzea ere murrizten du.

Irakurketa, beraz, jardunbide nagusietako bat izan behar da ikastetxean eta irakasgai guztiak eta ikastetxeko ekimen guztiak ukitu behar ditu, **gero eta alfabetizatuagoa den gizartean, ikasleek eraginkortasunez irakur dezaten, ikasteko eta eskola arrakasta lortzeko, aisialdian disfrutatzeko eta garapen osoa lortzeko.**

Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan, irakurketak euskararen normalkuntzan eta lanketan laguntzen du, batez ere, gure hizkuntzak gizarte presentzia urria duen testuinguruetan.

## Zer da irakurketa?

Irakurketaren esanahia azaltzen duen kontzepzio zientifikoa aberastu eta aldatu egin da aldaketa sozial, ekonomiko, kultural eta epistemologikoekin. Egun, praktika sozio-kulturaltzat hartzen da eta, hartara, irakurlearen ezagutzen eta testuaren esanahien izaera soziala nabarmentzen du. Horren arabera, komunitate bakoitzak modu jakin batean erabili eta egituratzen ditu testuak, gizarte jakin batean eta kultura jakin batean txertatuak baitaude. Irakurleak bere komunitatetik eta bere kulturatik eraikitzen du testuaren interpretazioa eta zentzu berezia ematen dio.

Beraz, egun, irakurketa gizartean gauzatzen den jardueratzat jotzen da eta ezaugarri horrek abilezia kognitibo konplexuak, munduaren ezaguera eta hizkuntzari lotutako ezagutzak abiarazteaz gain, testuarekin elkarreaginean aritzea eskatzen dio irakurleari. Horren arabera, behar-beharrezkoa da irakurketaren irakaskuntzari gizarte dimentsio zabala eta kritikoa ematea.

PISA 2009 Irakurketa Markoak honela definitzen du irakurtzeko gaitasuna<sup>1</sup>: (...) *helburu pertsonalak erdiesteko, aukerak eta ezagutzak garatzeko, eta gizartean parte hartzeko xedearekin irakurleak testu idatziak ulertzeko, erabiltzeko, gogoeta egiteko eta konprometitzeko duen gaitasuna da.*

Definizio horretan, lehengo ‘irakurketa’ hitz soilaren ordez, **irakurtzeko gaitasuna** kontzeptua aipatzen da. Horren baitan, ezagutzak, jarrerak eta era askotako estrategiak (kognitiboak, linguistikoak, pragmatikoak...) biltzen dira eta zentzua hartzen du erabileraren bidez, askotariko egoeretan aplikatuz eta askotariko helburuei erantzunez.

Bestalde, “(...) **helburu pertsonalak erdiesteko, aukerak eta ezagutzak garatzeko, eta gizartean parte hartzeko**” esaldiak honakoa azpimarratzen du: irakurketa baliabidea eta tresna dela eskola-arrakastarako, norberaren giza- eta lan-garapenerako eta gizarteratzeko.

**Ulertzea, erabiltzea eta gogoeta egitea** hitzek irakurritakoa zerbaiterako erabiltzea adierazten dute, harekin ‘zerbait egitea’, alegia, eta, irakurri ahala,

<sup>1</sup> *La Lectura En Pisa 2009. Marcos y Pruebas de la Evaluación.*  
<http://www.educacion.gob.es/dctm/ievaluacion/internacional/lectura-en-pisa.pdf?documentId=0901e72b8072f8d9>

irakurritakoaren zentzua etengabe berrikusi eta balioestea; hau da, xede jakin batekin irakurtzea.

**Konprometitzeak** irakurleak irakurgaiarekin duen jarrera adierazi nahi du; izan ere, jarrerak daude irakurzaletasunaren oinarrian eta beroriek markatuko dute testuarekiko interakzioa.

**Testu idatziak**, egun, era askotakoak dira: analogikoak eta digitalak, jarraituak (informazioa esaldi eta paragrafo jarraitutan antolatua) eta ez-jarraituak (zerrendak, formularioak, grafikoak, diagramak...), multimodalak (hitzak eta irudiak konbinatuz...) ... Halaber, XXI. mendeko ikasleak bizi diren gizarte eleanitzaren eta kulturantzaren ezaugarria da beste hizkuntza batzuetan idatzitako testuak irakurtzea, eta ezaugarri horrek areagotu egiten du testuaniztasuna.

Irakurtzeko gaitasunaren deskripzio horren arabera, beraz, ikasleek, irakurle kompetenteak izateko, prozesu hauek egiteko gauza izan behar dute:

- informazioa berreskuratzeko
- testuaren ulerkuntza globala egiteko
- testua interpretatzeko
- testuaren formari buruzko gogoeta egiteko eta balioesteko
- testuaren edukiari buruzko gogoeta egiteko eta balioesteko

**Informazioa berreskuratzea eta lortzea** da irakurketa-xedeari erantzuteko testuan esplizituki dauden datuak bilatu, aurkitu eta hautatzea. Ohiko jarduerak dira horiek eskolan nahiz eskolatik kanpo.

**Ulerkuntza globala** garatzeak irakurritakoa prozesatzea eta ulertzea eskatzen du, testuak zentzu betea har dezan. Testuaren barne koherentzia antzeman behar da eta horretarako esanahi partzialak (esaldiena, paragrafoena...) elkarri lotu, harik eta zentzu orokorra eraiki arte.

**Testua interpretatzea** da testuan esplizituki barik, atalen batean edo testuaren baitan ezkutaturik dauden ideiak eta informazioak identifikatzea. Prozesu horretan jarduera kognitibo asko abiarazten dira; lehen mailako eta bigarren mailako ideiak bereizten laguntzen duten haiek, kasu.

**Testuaren formari zein edukiari** buruzko **gogoeta egiteko eta balioesteko** irakurlearen ezagutzak eta esperientziak aktibatu behar dira eta testuarekin lotu. **Edukiari** dagokionez, gogoeta medio, testuak ematen duen informazioa beste iturri batzuetako informazioekin alderatu behar da. **Forma** balioesteko, berriz, irakurlea testutik urrundu, modu objektiboan aztertu eta hizkuntza kalitatea balioetsiko du.

Ikuspuntu horretatik, adierazle hauek ematen dituzte irakurle gaituaren ezaugarriak <sup>2</sup>:

- Askotariko xedeen arabera irakurtzen daki eta irakurgaiaren xedea antzematen du.
- Aurretiko ezagutzak erabiltzen ditu irakurgaiari zentzua emateko.
- Lexiko berria antzeman eta erraz bereganatzen du.
- Hipotesiak egiten ditu irakurketak iradokitzen dionaren inguruan.
- Testua bere osotasunean ulertzeko interpretazioak eta inferentziak egiten ditu.
- Testuko ideien arteko hierarkia ezartzen du.
- Jarrera kritikoa hartzen du eta iritzia ematen du testuan azaltzen den errealitatearen aurrean.
- Testuaren esanahia ebaluatzen du hizkuntza eta forma ezaugarriei erreparatuta.
- Ulermena bideratu eta kontrolatu egiten du testua irakurri bitartean.
- Aldiro berrikusten du irakurritakoa, behar bezala ulertu duela egiaztatzeko.
- Irakurri bitartean sortzen diren arazoei aurre egiteko estrategia egokiak aplikatzen ditu.

Horregatik, irakurtzeko gaitasuna ahalik eta ondoen garatzeko, hezkuntza-arloari eta arlo pertsonalari lotutako ekintzak eta jarduerak planifikatu eta abiarazi behar dira ikastetxean, eta egiteko horretan denak inplikatu behar dira: ikastetxea, familiak eta ingurua.

---

<sup>2</sup> *Irakurtzeko Gaitasuna Hobetzeko Plana* (2010) dokumentutik moldatua. Hezkuntza Saila. Nafarroako Gobernua.

# JARDUERA-ARDATZAK

## Sarrera


Dokumentu hau bi jarduera-ardatz handiren inguruan egituratu da. Ardatz horiek hezkuntza-arloan irakurketak dituen bi xede nagusiak dira:

- **Ikasteko irakurri**
- **Irakurzaletasuna garatu**

Argi dago sailkapen hori baliagarria dela hezkuntza-arloan; hala ere, bi xede horien mugak lausotu eta gurutzatu egiten dira sarritan; izan ere, irakurzaletasunak bultzatu egiten du ikasteko eta ezagutza sortu eta ikasitakoa partekatzeko helburuz egiten den irakurketa. Era berean, zenbat eta gehiago eta hobeto irakurri ikasteko, orduan eta errazago sustatuko da irakurzaletasuna.

Ardatz horiek garatzen laguntzeko orientabideak, ekintzak eta adibideak emango dira, honako bi testuinguruak kontuan izanik:

- ***Ikastetxea: ikasgela eta liburutegia***
- ***Familia eta Ingurua***



Ikastetxea funtsezko eragilea da irakurtzeko gaitasuna garatzeko arrazoi askorengatik: alde batetik, Haur Hezkuntzan hasita 16 urtera bitartean, herritar guztien oinarrizko hezkuntzaz arduratzen den erakundea delako; beste alde batetik, norbanakoa garatzeko eta gizarteratzeko bideak ematen dituelako eta



azkenik, eskolan, ikasteko eremua izanik batik bat, irakurtzeko gaitasuna behar-beharrezko tresna delako.

Ikastetxearen barruan, bestalde, liburutegiak informazio-baliabideak biltzen ditu hainbat euskarritan (digitalak, analogikoak ...). Ikasleek beraiengandik hurbil dagoen tokia dela sentitu behar dute; izan ere, liburutegiaren erabilera egokiak mesede egiten dio bai irakurzaletasunaren garapenari oro har eta literatura irakurtzeari bereziki, bai mota guztietako ezagutzak eskuratzeari eta parekoen arteko interakzioari ... Beraz, liburutegiaren dinamizazioa giltzarria da irakurketaren inguruko lan partekatuari buruz ikastetxean hartu behar diren erabakietan, eskola-elkarteko kide guztientzako gune esanguratsu eta motibagarria bihurtu dadin.

Familiari eta inguruari dagokienez, berriz, inguruak eskaintzen duen kultura aberastasunak alde batetik eta familiaren laguntzak bestetik, eskola-arrakastari laguntzen diote. Beraz, ikasleen irakurtzeko gaitasuna hobetzen laguntzeko eta irakurzaletasuna sustatzeko xedez ikastetxean gauzatuko diren jarduerak familiengana helarazi eta ingurura eramane behar dira eta horretaz gain, ikastetxera ekarri inguruko proposamen guztiak, betiere inguruaren egoera soziolinguistikoa kontuan harturik.

## **Ikasteko irakurri**

### **Sarrera**

“Ikasteko irakurri” ardatzak haxe azpimarratzen du: irakurketa, eskola esparruan nahiz eskolatik kanpo, ezagutza garatzeko eta ikasteko funtsezko baliabidea dela; izan ere, irakurtzen jakiteak eskola arrakasta ezinbestean bermatzen ez badu ere, irakurmena behar bezala garatuta ez izatea eskola porrotaren arrazoietakoa bat da eta norbanakoaren garapen kognitiboa oztopatzen du. Gainera, derrigorrezko eskolaldia eta horren ondorengo ikasketak amaituta ere, mota askotako testuak askotariko euskarrietan irakurtzea izan ohi da ezagutzak transmititzeko eta jasotzeko bitarteko nagusia.

Euskal Autonomia Erkidegoan egin diren Diagnostiko Ebaluazio proben eta irakurtzeko gaitasuna ebaluatzeko nazioarteko proben (PISA) emaitzek erakutsi dutenez, irakurtzeko gaitasunaren maila oso lotuta dago eskola porrotarekin edo arrakastarekin.

Irakurtzeko gaitasuna modu sistematikoan landu behar da Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, irakasgai guztietan eta ikasmaita guztietan, aurrez antolatutako eta planifikatutako jardueren bidez, ikasle guztiak irakurle gaituak izan daitezzen; ahaztu gabe, irakurtzeko oztopoak izan eta beraz, berariazko esku-hartzeak beharko dituzten ikasleak.

Jarduera-ardatz honetan, ikasteko irakurketa garatzeko orientabideak, ekintzak eta adibideak proposatzen dira bi testuinguru hauek kontuan izanik:

- ***Ikastetxea: ikasgela eta liburutegia***
- ***Familia eta Ingurua***

**Ikastetxea. Ikasgela**

Irakurtzeko gaitasuna garatzea ikastetxeak duen lehentasunezko erantzukizuna da eta bertako estamentu guztiek hartu behar dute parte zeregin horretan, zein bere jarduera-esparruan (Eskola Kontseilua, zuzendaritza, klaustroa ...), Oinarrizko Gaitasunen eta beraietako bat den Hizkuntza-Komunikaziorako Gaitasunaren garapena ezartzen duen indarreko curriculum markoak zehaztutakoarekin bat.

Irakurtzeko gaitasuna garatzeko hartuko diren erabakiak eta gauzatuko diren ekimen guztiak **irakaskuntzaren inguruko gogoetan oinarritu** behar dira eta **ikastetxearen planteamendu orokorrekin bat etorri behar dute**. Horren ondorioz, bertako dokumentuetan adierazi behar dira (Hizkuntz Proiektua, Hizkuntza Normalkuntza Proiektua, Hobekuntza-Plana, Curriculum-Proiektua, irakasgaien programazioak...), bai eta ikastetxean bultzatuko diren berrikuntza edo prestakuntza ekintzetan ere.

Irakurketaren kontzepzioari buruz dokumentu honen sarreran azaldutakoaren arabera, modu eraginkorrean irakurtzeko, irakurle konpetenteak burutzen dituen **irakurketaren hiru aldiei** lotutako estrategiak garatu eta landu behar dira. Hiru fase horiek oso kontuan hartu behar dira ikasgelan eta modu koherentean eta planifikatuan landu irakasgai guztietan.

Hauexek dira irakurketa-prozesuaren hiru faseak:

Prozesuan zehar zailtasunak eta arazoak  
antzman eta konpontzea

**Irakurri aurretik:**

- Irakurketaren helburua zehaztea. Zertarako irakurriko den zehaztea.
- Testuaren esanahiaren inguruko hipotesiak eta jakin-mina aktibatzea.
- Testuaren edukiaren inguruan aurretiazko ezagutzak aktibatzea.
- Aurreikuspenak eta hipotesiak adieraztea.

**Irakurri bitartean:**

- Hipotesiak etengabe adierazi eta egiaztatzea.
- Irakurritakoaren gaineko galderak egitea.
- Testuak irakurritakoan sortzen diren zalantzak argitzea.
- Irakurritako atalen edukia laburbiltzea.

**Irakurri ondoren:**

- Irakurritakoa laburpen, eskemen eta buru-mapen bidez berrantolatzea.
- Irakurritakoa berrerabiltzea eta ezagutza berria eraikitzea.

Irakurketa-prozesuaren hiru aldi horietan testua ulertzeko oztopoak ager daitezke eta, hartara, laguntza ematea funtsezkoa izango da. **Irakurri aurretik**, esaterako, testuaren edukiari buruzko aurretiko ezagutzarik ez izatea edo gutxi jakitea gerta liteke; hortaz, zenbait alderditan sakondu egin beharko da eta informazio osagarria eman. **Irakurri bitartean**, berriz, zenbait hitz ezezagunek eragotzi dezakete testua behar bezala ulertzea eta, beraz, azaldu egin beharko dira; eta **irakurri ondorengo fasean**, azkenik, irakurlea irakurritakoa eskema koherente batean antolatzeko gauza ez bada, berriro irakurri beharko da testua eta koherentzia ematen dioten elementuei erreparatu.

Ulermen-jarduerak **estu lotuta daude trebetasun kognitibo-linguistikoei**, ikasteko behar-beharrezko trebetasunak berauek. Izan ere, irakurri egiten da honakoak egiteko:

- gertaerak, fenomenoak, objektuak, pertsonak... deskribatzeko
- ikasgaiak lantzeko erabili behar diren hitzak definitzeko
- gertaera eta aldi historikoak, izaki bizidunak ... sailkatzeko
- teoriak, prozesuak, gertakariak ... laburtzeko
- iritziak, ondorioak eta emaitzak justifikatzeko eta argudiatzeko
- teoriak egiaztatzeko
- kontatzeko
- azaltzeko...

Kontuan izan behar da, halaber, **idatzitakoaren gaineko ulermen-jarduerak eta beste hizkuntza-trebetasunak elkarlotuta daudela** eta, beraz, batzuek besteei eragiten dietela: irakurri egiten da idazteko, irakurri egiten da besteekin hitz egiteko, irakurri egiten da ahozko azalpena prestatzeko ...

Irakurketa-jarduerak, beraz, ez dira isolaturik proposatu behar, baizik eta zentzua eta esanahia emango dieten **testuinguru baitan** eta sekuentzia didaktiko konplexuagoetan txertatu. Esaterako, Biologia irakasgaiako proiektuak gauzatzeko, ikasleek informazio-testuak edo jarraibideak irakurri beharko dituzte eta informazioa laburtzeko jarduerak egin. Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaietan, adibidez, gaurkotasuneko gai bati buruzko mahai-ingurua proposatzeko

gero, ikasleek, lehendabizi, informazioa bilatu beharko dute beste herrialde batzuetako ohituren inguruan, kasu, eta informazio hori hautatzeko, interpretatzeko edota beste informazio batzuekin alderatzeko jarduerak egin beharko dituzte.

**Irakurketa-prozesuaren hiru aldiak** irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren- **kontuan hartuko dituzten jarduerak proposatu behar dira**, betiere, sekuentzia didaktikoetan txertatuak. Hala, irakurri aurretik, irakurgaiaren izenburuak zer iradokitzen dien galdetu ahal zaie ikasleei eta hortik abiatuta, testuaren gaiaz edo edukiaz galdetu eta hipotesiak eginarazi; hartara, irakurgaiaren inguruko aurre-ezagutzak aktibatuko dira eta horrek testua ulertzen lagunduko die. Testua paragrafoka irakurtzeak eta ikasleek elkarrekin iritziak bateratu eta irakurritakoaren inguruan hitz egiteak lagun dezake ulermen arazoak detektatzeko testua amaitu aurretik. Eta irakurketaren bidez eskuratutako ezagutza beste jarduera batean erabiltzeak lagundu egingo du testua behar bezala ulertu den ala ez egiaztatzeko.

Irakasleak **'eredu' gisa jardun** behar du eta irakurketa-prozesuaren hiru faseetan **gidari izan**, laguntzeko, zuzentzeko eta ikasleei jarraibideak emateko. Prozesu honetan, beraz, ezinbestekoa da irakasleak galderen bidez<sup>3</sup>, laguntzea eta gidatzea, ikasleei testua ulertzen laguntzeko

Irakasleak ikasleen **motibazioa eta parte-hartzea** bultzatuko duten ulermen-jarduerak planteatu behar ditu eta **jarduera horien helburua eta zentzua azaldu**.

Ulermen-jarduerak, halaber, **ikasleen arteko harremanak, parekoen arteko elkarrizketa bultzatu behar dute**, testuaren esanahia elkarrekin eraiki ahal izateko. Beraz, ez da komeni, askotan egin ohi den bezala, banaka eta isilik burutu behar diren jarduera gisa planteatzea.

Irakurtzeko gaitasunaren garapenak, hasiera batean, behintzat, oso jarduera gidatuak diseinatzea eskatuko dio irakasleari, ikasleak, pixkanaka, gero eta autonomia handiagorekin irakurtzeko gai izan arte; ahaztu gabe, badirela prozesu horretan laguntza handiagoa behar duten ikasleak.

---

<sup>3</sup> SANCHEZ MIGUEL, E. (2010): *La lectura en el aula*. Crítica y Fundamentos 27, GRAÒ. Barcelona.

Ohiko gelatik aparte badira ikastetxean ikasleek testuak irakurri behar dituzten beste toki batzuk ere, hala nola, liburutegia, laborategiak, erabilera anitzeko gelak, informatika gela ... e.a. Beraz, irakurtzeko gaitasuna garatzeko proposamenak toki horietara ere heldu behar dira. Hartara, **espazioen antolakuntza malgua eta dinamikoa** izan behar da.

**Denboraren antolakuntzari** lotuta, berriz, indarrean dagoen Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculum Dekretuak zehaztutakoa abiarazteko erabakiak hartu behar dira eta programazioetan adierazi. Honakoa dio Dekretuak: *“Irakurketa ezinbesteko faktorea da oinarrizko gaitasunak garatzeko eta komunikaziorako gaitasuna sendotzeko. Ikastetxeek ikasgai guztien hezkuntza-jardueran bermatu behar dute irakurketari eskainitako denbora, maila guztietan.”*<sup>4</sup>

Ikasleak trebatu egin behar dira honetan: **eskola-eremuko testuak** eta **gizarte-eremuan** eta garapen pertsonalerako lagungarri izango zaizkien testuak ulertzen eta interpretatzen.

Hartara, ezinbestekoa da ikastetxeko departamentu guztiek zein bere irakasgaiari lotutako testu-bankua osatzea: **testu errealak** eta, testu-tipoari (narrazioa, azalpena, argudioa ...), testu-generoari (albisteak, kontakizunak, eleberriak, biografiak, artikulak, erreportajeak ...), euskarriei, erabilpen-eremuari (hedabideetakoak, literatura arlokoak ...) eta hizkuntzei dagokienez, askotariko testuak, testu jarraituak eta ez-jarraituak (mapak, grafikoak ...) izango dituen testu-bankua. Ahal izanik, ikasleen intereseko testuak erabiliko dira.

Testu banku honek **erantzuna eman behar die, halaber, ikasteko eta irakurtzeko**

#### Testu-bankuaren ezaugarriak

Gaurkotasuna eta gizarte errealitatea islatzen dituzten testuak

Kalitatearen eta eraginkortasunaren arabera hautatuak.

Ikasleen interesekoak eta haien ezagutza-mailarako egokiak

Askotarikoak, testu-tipo, testu-genero eta erabilera-eremuari dagokionez

Analogikoak eta digitalak

Jarraituak eta ez-jarraituak

Beste hizkuntza batzuetan idatziak

Egokituak, irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat

<sup>4</sup> Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculum-aren Dekretua. Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza Saila <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2007/11/0706182a.pdf>

**zailtasunak dituzten ikasleei** eta bakoitzari behar dituen baliabideak eskaini: Braille testuak, testu egokituak...

Era berean, **ikastetxean erabiltzen diren eta ikasten diren hizkuntzetan idatzitako testuak** edukitzea komeni da, hizkuntza ofizialetan eta atzerriko hizkuntzetan. Horietaz gain, inguruan eta familietan erabiltzen diren hizkuntzetan idatzitako testuak ere bildu beharko lirateke. Bilduma horretan lehenetsua izan beharko lukete gizartean presentzia txikia duen hizkuntza ofizialean idatzitako testuek.

Testuen aniztasunari dagokionez, **testu digitalek** aipamen berezia behar dute; izan ere, izugarri hazi da horien erabilera eta gero eta gehiago haziko da giza jardueraren eremu guztietan: ikasketa-eremuan, lan-eremuan, pertsonen arteko harremanen eremuan ...

Testu analogikoak eta testu digitalak irakurtzeko behar diren trebetasun gehienak berdinak dira. Testu digitalek, baina, **abilezia bereziak lantzea** eskatzen dute; izan ere, hipertestuak izan ohi dira eta beste testu batzuetara eramaten gaituzte.

Abilezia berri horiek honakoei eragiten diete: informazioa eskuratzeko moduari; testuaren ideiak elkarrekin uztartu eta esanahia eraiki ahal izateko hainbat eratako osagaiak elkarrekin lotzeko eta erlazionatzeko moduari; bai eta edukiaren fidagarritasuna balioesteari ere.

Testu analogikoen egitura linealaren aldean **testu digitalen egitura zuhaitz egitura da, adar asko ditu**. Beraz, irakurleak askotariko aukerak eta bideak topatzen ditu testua irakurtzean. Horregatik, irakasleak irakurketa-xedea zehazten eta horren arabera irakur-ibilbidea erabakitzen lagundu behar die irakurle ezgaituei. Hori lortzeko, beharrezkoa da, besteak beste, testu digitaletan informazioa antolatzen laguntzen duten aurkibideak aztertzea: nabigazio-menua, ikurrak, barneko bilatzaileak, web gunearen mapa...

Internet etengabe gaurkotzen den **liburutegi digitala** da eta irakurgaiak bilatzen eta hautatzen oso tresna lagungarria; horregatik, hainbat hizkuntzatan idatzitako kalitatezko testu digitaletara jotzeko aukera ematen duten webguneen eta orrialdeen bilduma egitea komeni da.

Bestalde, egun, gero eta gehiago erabiltzen dira kode bat baino gehiago, hizkuntzazkoak eta ikus-entzunezkoak, erabiltzen dituzten **testu multimodalak** eta mezuak sortu eta jasotzeko tresna digitalak. Horrenbestez, alfabetizazioaren eta irakurtzeko gaitasunaren kontzeptuak zabaltzera behartzen dute.


Testu horietan askoz aktiboagoa izan behar du irakurleak; izan ere, bi kode edo gehiago dituen mezu konplexua deskodetu egin behar du, osagaien (irudia, soinua, testua...) zentzua antzeman eta beraien arteko erlazioak ezarri, esanahi orokorra eraiki ahal izateko.

### **Ekintzak eta jarduerak**

Ikastetxean, irakurtzeko gaitasuna hobetzeko ekintzak modu isolatuan, banakako ekintza gisa, planifikatu eta gauza badaitezke ere, ikastetxeko kide guztien lan koordinatu eta kohesionatuak baino ez du bermatuko haren garapen egokia.

Atal honetan proposatzen diren ekintzak eta jarduerak ikastetxeko irakasle guztientzat planteatzen dira. Irakasleek, koordinaturik, eta ikastetxearen errealitatea kontuan harturik, hautatu eta adostu egin behar dute zein edo zeintzuk diren egokienak, horiekin beren lan-ibilbidea egituratu eta erabaki guztiak dokumentu batean jaso. Dokumentu hori aldiro berrikusi eta berregokitu egin beharko da ikasleen irakurtzeko gaitasunaren hobekuntzaren arabera.

Ekintzak eta jarduerak elkarri loturik daude, hiru bloke handitan antolatuta:





*Gogoeta egin irakurtzeko gaitasunaren inguruan*

- Prestakuntza saioak antolatu irakurtzeko gaitasunak eta gaitasun hori ikasgai guztietan garatzeak duen garrantziaren inguruan.
- Irakurtzeko gaitasunaren inguruko oinarrizko bibliografia bildu eta mintegietan, departamentuetan, koordinazio-bileretan... modu dialogikoan irakurri eta landu.

**OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA**

- 10 claves para enseñar a comprender, E. Vidal-Abarca.
- Ocho preguntas en torno a la lectura y ocho respuestas no tan evidentes, I. Solé.
- Irakurketa-estrategiak eskolan lantzen / Irakurriaren ulermenaren zailtasunak bigarren hezkuntzan, G. Lasarte
- Zertarako Irakurri? Ulertzeko, V. Moreno

*Bibliografia. Zenbait irakurgai*

- Irakasgai guztietan egiten diren irakurketa-jarduerak aztertu, gabeziak eta beharrianak antzemateko.

**IRAKURRIAREN ULERMENA: SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN JARDUEREN ANALISIA**

Badago idatzitakoaren ulermena lantzeko jarduerarik?

Hainbat iturritatik jasotako informazioa lantzeko ulermen-jarduerarik proposatzen da?

Ulermen-prozesua (irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren) lantzen da?

Irakurketa-jarduerak askotariko xedeei erantzuten diete?

Badago testuen ulerkuntza orokorra lantzeko jarduerarik?

Badago testuen interpretazioa lantzeko jarduerarik?

Badago errefortzu edo laguntza jarduerarik?

Zer estrategiak proposatzen dira ikasleen ulermen-maila ebaluatzeko?

*Ulermen-jarduerak aztertzeko txantiloia*

- Irakurtzeko gaitasuna hobetzeko estrategia eta praktika onak identifikatu.

### IRAKURKETAREN IRAKASKUNTZA: ANALISIA

- Ikasgaiari dagozkion testuetan irakurketaren hiru faseak lantzen dira.
- Ulermen arazoak konpontzeko laguntza ematen da.
- Irakurriaren ulermena irakasgai guztietan ebaluatzen da, ebaluazio- irizpide eta adierazle zehatzen bidez.
- Zailtasunak dituzten ikasleentzako errefortzu- eta laguntza-jarduerak proposatzen dira.

*Irakurketa-praktikak aztertzeko txantiloia*

### *Irakurketaren inguruko erabakiak adostu eta programatu*

- Irakasgaien helburuetan irakurketari lotutako haiek hautatu eta ikasmailetara egokitu.

NATURAREN ZIENTZIAK		
Ikasgaiaren helburu orokorrak	Bigarren mailari lotutako helburuak	Sekuentzia didaktikoa: helburuak
<p><b>Informazioa lortzea gai zientifikoei buruz</b>, hainbat iturri erabiliz besteak beste, informazio- eta komunikazio-teknologiak, eta informazio hori erabiltzea. Informazioa erabiltzeko, edukia baloratuko da, eta <b>gai zientifikoei buruzko lanak oinarritzeko eta orientatzeko eta gai horietaz jarrera pertsonal kritiko eta oinarrituak</b> hartzeko balio duten aztertuko da.</p>	<p>Energiari buruzko informazioa bilatzea askotariko informazio iturriak analogikoak (entziklopediak, aldizkariak, testu liburuak...) digitalak (web orriak) erabiliz <b>ahozko zein idatzizko azalpenak egiteko</b>, bai eta <b>gogoetak egiteko zentzu kritikoz</b> energia moten inguruan, banakako erabileraren zein gizarte erabileraren inguruan, eta kontsumoari dagokionez, norberak har dezakeen jokabidearen inguruan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Energia iturri nagusiak ezagutzea eta balioestea</li> <li>▪ Eguneroko bizitzako energia transformazioak <b>azaltzea</b>.</li> <li>▪ <b>Informazioa modu eraginkorren bilatzea eta hautatzea</b></li> <li>▪ Energia lortzeak, garraiatzeak eta erabiltzean sorrarazten dituen arazoengatik <b>azalpena egitea</b>.</li> <li>▪ Energia aurreztearen garrantziaz <b>gogoeta egitea</b>.</li> <li>▪ Energia kontsumoaz norberaren erabakiak hartzea</li> </ul>


*Irakurketari lotutako helburu egokituak*

- Ikasgaiaren ebaluazio-irizpideak aztertu, irakurketari lotutakoak adostu eta programazioan txertatu.

GIZARTE ZIENTZIAK	
DBH3	
<p>12. Lan errazak edo ahozko azalpenak, bakarka zein taldean, planifikatzea eta gauzatzea, zenbait iturri erabilita (grafikoak, krokisak, gaikako mapak, datu-baseak, irudiak, testu idatziak, Internet); ateratako ondorioak zuzen antolatuta, arrazoituta eta modu ulergarrian jakinaraztea, horretarako informazio-eta komunikabide teknologiek ematen dituzten aukerak erabilita.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ea zuzen erabiltzen, <b>irakurtzen eta interpretatzen</b> dituen grafikoak, gaikako mapak, kartografia, etab.</li> <li>• Ea planteatzen <b>dituen aztertu beharreko gaiel buruzko hipotesiak eta galderak</b>.</li> <li>• Ea behar duen <b>informazioa lortzen duen</b> eta erregistratzen duen; ea, horretarako, <b>informazio-iturri bat baino gehiago erabiltzen duen</b> eta, hala badagokio, landa-lanak ere bai.</li> <li>• Ea <b>sistematikoki eta zorrotz hautatzen dituen informazio-iturriak</b> gai jakin bat landu behar duenean.</li> <li>• Ea euskarri egokiak hautatzen edo sortzen dituen bildutako informazioa erregistratzeko.</li> <li>• Ea testu mota egokiena aukeratzen duen lortu duen informazioa eta/edo atera dituen ondorioak behar bezala jakinarazteko.</li> </ul>

Irakurketa. Zenbait ebaluazio-adierazle

- Askotariko ebaluazio-tresnak erabili (kontrol-orriak, auto-ebaluazio eta koebaluazio txantiloiak...), irakurtzeko gaitasuna balioesteko



Ebaluazio-tresnak

- Azken ekoizpena lortzea helburu duten lan-proiektuak programatu. Proiektu horiek gauzatzeko, testuak irakurtzeko eta ulermena lantzeko berariazko jarduerak proposatu.
- Irakasgaien programazioetan denbora zehaztu dibulgazio-testuak, testu osagarriak eta ikasgaiari lotutako beste testu batzuk irakurtzeko: artikuluak, entziklopediak, gaikako webguneak....
- Irakurtzeko gaitasunaren inguruan hartuko diren erabaki guztiak dokumentu bakar batean bildu. Hala, hartuko diren erabakiak ebaluatu eta berrikusi ahal izango dira.

### *Irakurketa-jarduerak eta proiektuak proposatu irakasgai guztietan*

- Irakasgaietan erabiltzen diren material didaktikoak irakurketa-jarduerekin osatu, hala behar izanez gero.
- Ikasgelan erabiltzen diren informazio iturriak dibertsifikatu (hedabideak, web orrialdeak, orrialde digitalak, testu-liburuak, entziklopediak ...), irakurketa kritikoa sustatzeko:
  - Ikasgaia lantzeko irakurgaien gaurkotasuna ziurtatu.
  - Laguntza-sistemak erabili, hala behar izanez gero, ikasle guztiek informazio iturrietara jotzeko aukera berdina izan ditzaten.
  - Ulermen-jarduerak proposatu testu-tipo (narrazioak, azalpenak, argudioak...) eta testu-genero askotarikoak (albistek, gutunak, biografiak, erreportajeak, jarraibideak, kronikak...) lantzeko. Testu horiek erabilera-eremu desberdinetakoak (ikasketak, erakundeak, pertsonen arteko harremanak, literatura, hedabideak ...) izan behar dira eta era askotako euskarrietan proposatu behar dira.

<b>Deskripzio-testuak</b>	<b>Argudio-testuak</b>	<b>Azalpen-testuak</b>	<b>Narrazio-testuak</b>
Deskripzio zientifikoa Definizioa Eskema ...	Iritzi artikulua Zuzendariari gutuna Argudio zientifikoa Prentsa eztabaida Testu iruzkina ...	Hiztegia Azalpen didaktikoa Monografia Erreseina Dekalogoak Dibulgazio artikulua Entziklopedia artikulua ...	Komikia Biografia Kondaira Alegiak Kontakizun laburrak Eleberri historikoa  Albistek, Erreportajeak Kronikak

- Ikasleek modu autonomoan edota irakaslearen laguntzarekin uler ditzaketen beste hizkuntza batzuetan idatzitako testuak proposatu, ulermen-estrategiak gara ditzaten.
- Jarrera positiboak eta baikorrak sustatu ikasleek beste hizkuntza batean, beste hizkuntza-erregistro batean edo euskalkian idatzitako testuak ulertzea beharrezkoa dela senti dezaten.
- Irakurketa-jarduerak sekuentzia didaktikoetan edo proiektuetan txertatu<sup>5</sup> eta testuingururik gabeko jarduerak saihestu.

0	Jarduera: Negoziazioa
1.	<b>LAN-SEKUENTZIA MONOGRAFIA, ZER DA?</b>  1. jarduera: Monografiaren eta azalpen testuen ezaugarriak zehazten 2. jarduera: Glosategia eta monografia 3. jarduera: Objektibotasuna/subjektibotasuna bereizten 4. jarduera: Lexikoa. Hitzak sailkatzen
2.	<b>LAN-SEKUENTZIA GAIA ZEHAZTUKO DUGU: HERRIALDE GARATUEN ETA EZ-GARATUEN ALDEAK</b>  5. jarduera: Herrialde garatuen/ez garatuen ezaugarriak aztertzen 6. jarduera: Zenbait datu interneten jasotzen 7. jarduera: Grafikoak: azalpen testuetan informazio bide garrantzitsuak
3.	<b>LAN-SEKUENTZIA AZALPENA NOLA ANTOLA DEZAKEGU ERA EGOKIAN?</b>  8. jarduera: Testu antolatzaileak eta lokailuak 9. jarduera: Herrialdeen kokapena azaltzen
4.	<b>LAN-SEKUENTZIA MONOGRAFIA IDATZIKO DUGU</b>  10. jarduera: Planifikatzen 11. jarduera: Aztergaiak aukeratzen 12. jarduera: Datuak biltzen eta lanaren helburuak zehazten 13. jarduera: Gidoia eta eskema osatzen 14. jarduera: Konparazio-egitura 15. jarduera: Konparazio-egitura garatzeko sintaxia ariketak 16. jarduera: Sarrera idazten 17. jarduera: Azken ekoizpena eta ebaluazioa

*Irakurketa-jarduerak sekuentzia didaktiko batean txertatuak*

<sup>5</sup> <http://trataerabateratua.wordpress.com>. Unitate didaktikoa: Osasuna herrialde garatuetan eta ez-garatuetan.

- Ikaskuntza esparruko irakurketa-jarduerak proposatu askotariko xedeak lortzeko: datu zehatzak eskuratzeko, informazioa ordenatzeko, interpretatzeko, prozesuren bat ezagutzeko, ideiaren bat balioesteko, plazera lortzeko ... Betiere, testuak ematen dituen aukera guztiak xahutu gabe. Testu bakoitza irakur-helburu zehatz bati lotuta proposatu beharko litzateke.

### NEKTAR-BILKETA

Erleek ezta ekoizten dute bizirik irauteko. Horixe da haien elikagai bakarra. 60.000 erleko erlauntz batean, hiru erletik batek nektarra biltzen du, eta, ondoren, erle langileek ezti bihurtzen dute nektar hori. Erle gutxi batzuk esploratzaileak edo bilatzaileak dira: nektar-iturriak bilatzen dituzte, eta, ondoren, erlauntzera itzultzen dira, besteei aurkitutakoaren berri emateko.

Nektar-iturria non dagoen adierazteko, erle esploratzaileek dantza egiten dute. Dantza horren bidez, hartu beharreko norantzaren eta egin beharreko distantziaren berri ematen dute. Erleek sabelaldea astintzen dute alde batetik bestera eta 8 itxurako zirkuluak egiten dituzte. Dantza hori nolakoa den ikusteko, begiratu azpiko grafikoari.

(...)

### EZTI-EKOIZPENA

Erleak nektarrarekin erlauntzera heltzen direnean, erle langileei ematen diete nektarra. Erle langileek barailen bidez lantzen dute nektarra, eta erlauntzeko aire bero eta lehorrean jartzen dute. Bildu berritan, nektarrak azukreak eta mineralak izaten ditu urarekin (%80 inguru) nahasita. Behin hamar edo hogeita minutu igarota, soberako ur kantitate handia lurrundu ondoren, erle langileek gelaxketan sartzen dute nektarra, eta, horietan, nektarrak ura galtzen jarraitzen du. Hiru egun geroago, gelaxketako eztiak %20 inguru izaten du ura. Une horretan, erleek argizariz egindako tapen bidez estaltzen dituzte gelaxkak. Sasoi bakoitzean, lore-mota bereko eta eremu bereko nektarra biltzen dute erleek. Fruta-arbolak, hirustak eta loretan dauden zuhaitzak dira nektar-iturri nagusietako batzuk.

IRAKURKETAREN XEDEA	ULERMENA EGIAZTATZEKO, IRAKURKETAREN XEDEARI LOTUTAKO GALDERA
Testuaren ulerkuntza globala	<p><b>Zein helburu du erleen dantzak?</b></p> <p>A. Ezti-ekoizpena arrakastatsua izan dela ospatzea.</p> <p>B. Esploratzaileek zer motatako landarea aurkitu duten adieraztea.</p> <p>C. Erregina bat jaio dela ospatzea.</p> <p>D. Esploratzaileek elikagaia non aurkitu duten adieraztea.</p>
Testua interpretatzea	<p><b>Zein da nektarraren eta eztiaren arteko desberdintasun nagusia?</b></p> <p>A. Substantzian dagoen ur-proporzioa.</p> <p>B. Substantzian dauden azukrearen eta mineralen arteko erlazioa.</p> <p>C. Substantzia biltzeko aukeratzen duten landare-mota.</p> <p>D. Substantzia lantzen duen erle-mota.</p> <p><b>Dantzan, zer egiten dute erleek elikagaiaren eta erlauntzaren artean zer distantzia dagoen adierazteko?</b></p>
Informazioa berreskuratzea	<p><b>Adierazi erleen nektar-iturri nagusietako hiru:</b></p> <p>1. _____</p> <p>2. _____</p>

- Irakurketa-prozesua lantzeko jarduerak proposatu, betiere sekuentzia didaktikoen barruan txertatuak.

Hartara, **irakurri aurretik**, oso garrantzitsua ikasleak motibatzea, hipotesiak egitea, irakurketaren xedea jakinaraztea, aurretiko ezagutzak azalratzea.... Fase honetan, beraz, honakoak egin daitezke:

- Ikasleak animatu testua irakurtzera.
- Irakurketaren xedea zehaztu, zer irakurriko duten azaldu eta zergatik eta zertarako irakurriko duten adierazi.
- Gaiaren inguruan zer dakiten gogorarazi edota gai horri lotutako beste gai batzuen inguruan dakitena azalatu.
- Testuaren markei erreparatu: izenburuei, azpituluei, atalei, azpimarrei, letra lodiei... Zenbait liburutan aurkibidearen analisia oso baliabide erabilgarria da edukiaz hitz egiteko eta testuaren antolaketa antzemateko.
- Hitz ezagunak zehaztu gaia identifikatzeko, pertsonaien izenak edo istorioaren kokalekua identifikatu, objektuen, tokien edo pertsonen izenak bereizi, argazki eta irudien oinetan idatzitako pertsona, toki izenei edo informazio laburrei erreparatu...
- Gaiak aurreratu eta ikasleen arreta eraman puntu, esaldi edo paragrafo esanguratsuenetara.

**Irakurri bitartean**, berriz, aukera eman behar zaie galderak egiteko, irakurritakoaren atalen gaineko ideiak laburtzeko, ulertu dutela egiaztatzeko ... Fase honetan, beraz, honako jarduerak egin daitezke:


- Testuari laguntzen dioten irudiei, grafiko eta eskemei erreparatu eta horiek testuarekin duten harremana ikustarazi.
- Galderak egin ikasleek irakurgaiaren funtsezko atalei errepara diezaieten.
- Irakurtzen ari diren testuari buruz hitz egitera bultzatu eta galdetu gai horretaz gehiagorik badakiten, beste daturik ba ote duten...

- Ulermen-arazorik ote duten galdetu eta antzeman, zehatz-mehatz, zer zailtasun edo oztopo izan duten: lexikoa, esaldiak ...
- Ikasleak ohitu testua ulertu duten ala ez pentsatzera eta izan dituzten ulermen arazoaren inguruan gogoeta egitera.
- Irakurraldian zehar zerbait ulertu ez badute, ulermen-arazoak konpontzeko baliabideak eman, eta hala, honakoak egin daitezke: berriro irakurri, testuingurua argitu, hiztegia kontsultatu, beste liburu batera jotzeko aukera eman, irakurritakoaren inguruko ezagutza zabaltzeko.

**Azkenik, irakurritakoa erabili** eta ezagutza berria eraikiko dute. Ikasleek elkarrekin egiaztatuko dute ulertu duten ala ez, eskemak, buru-eta kontzeptu-mapak, laburpenak... eginez. Fase honetan, honako jarduerak egin daitezke:

- Irakurri dutenaren inguruan jardun eta zer atal izan zaien zailena edo korapilatsuena eta zergatik galdetu.
- Liburuaren aurkibidea erabili eta alderatu testuan ulertu dutena bertan jasotako informazioarekin, tituluak eta epigrafeak kontsultatzeak duen erabilgarritasuna azpimarratuz, nork bere buru-laburpena egiteko eta irakurritakoa gogoratzeko.
- Testuko lexiko berria gogorarazi eta ikasleek esanahia ulertu dutela egiaztatu.
- Irakurritakoa berrantolatzen lagundu. Horretarako, eskemak, laburpenak, buru-mapak egin ditzakete.
- Irakurritakoa berrerabiltzea sustatu, ezagutza berria eraikitzen laguntzeko.





IRAKURRI AURRETIK

- Zein izan daitekeen testuaren edukia antzeman azaletik begiratuta.
- Metroa eta beste garraio batzuk konparatu.

IRAKURRI BITARTEAN

- Honako kontzeptuak alderatu eta bereizi:
  - Linea
  - Ibilbidea
  - Zonaldea

IRAKURRI ONDOREN

- Alderatu foileto horretan dauden informazio mota desberdinak.

*Irakurketaren aldiak lantzeko jarduera. Adibide bat*

- Irakurketa dialogikoa bultzatu ikasleen arteko harremanak, berdinen arteko solasa eta elkarrizketa sustatzeko. Hala, testua ulertzeko prozesuan antzemandako zailtasunak eta oztopoak elkarrekin gaindituko dituzte eta ezagutza elkarrekin eraikiko dute. **Bikoteka Irakurtzen** programak, esaterako, irakurtzeko gaitasuna ez ezik, ikasleen arteko lankidetzaren ere sustatzen du eta familiak inplikatzeko dituen etxean egin behar diren eskolako lanetan.



Bikoteka irakurtzen

### BIKOTEKA IRAKURTZEN

- Lankidetzako ikaskuntza metodoa da.
  - Bikoteen osaketan oinarritzen da, rolen banaketa batetik (tutorea eta tutoretzapekoa).
  - Egituratutako interakzio gidoi bat abiaburu, bikote horretako bi kideek ikasi egiten dute.
  - Askotariko testuak irakurtzen dira (jarraituak, ez-jarraituak, literatura esparrukoak, ikasketa esparrukoak ...)
  - Familien inplikazioa ere eskatzen da; zenbaitzuetan, etxekoak irakurketa-tutore izaten dira.
- Askotariko ebaluazio-tresnak erabili irakurketa-prozesua bideratzeko eta balioesteko (Kontrol-orriak, koebaluazio eta autoebaluazio-orriak, esaterako).

#### BIKOTEKA IRAKURTZEN: BIKOTEAREN AUTOEBALUAZIOA

Data: .....tik ..... ra  
 Ikasle-tutorearen izena: .....  
 Ikasle-tutoretzatuaren izena: .....

Biok egitekoa (Ev. De la pareja)	Bai	ez
<b>Pauso guztiak betetzen ditugu: irakurri aurretik, irakurri bitartean, irakurri ondoren...</b> (Realizamos todos los pasos propuestos: antes de la lectura, durante la lectura, después de leer...).		
Tutoretzatuak... (Los alum. tutorados)	Bai	ez
<b>Hitzak banatzen ditu</b> (separa las palabras)		
<b>Pausak errespetatzen ditu: (.) (,) (.)</b> ( respeta las pausas)		
<b>Testuaren entonazio egokia egiten du: ?, !</b> (La entonación es adecuada)		
<b>Hitzak gehitu gabe, aldatu gabe, trabatu gabe irakurtzen du.</b> ( lee sin añadir, cambiar o desfigurar palabras).		
<b>Ondo ahoskatzen du</b> (Pronuncia adecuadamente)		
<b>Irakurketaren erritmoa: mantsoegia, azkarregia, egokia</b> (azpimarratu) (El ritmo de lectura: demasiado lento, rápido, apropiado)		
<b>Galderak ondo erantzuten saiatzen da</b> ( Intenta responder a las preguntas de manera adecuada)		
Tutoreak... (Los alum. Tutores)	Bai	ez
<b>Ekintzen orrialdea prestatzen du</b> ( Prepara la hoja de actividades).		
<b>Eredua ematen du eta ondo irakurtzen laguntzen du</b> (Ejemplifica y ayuda a leer bien el texto)		
<b>Denbora eta pista ematen ditu</b> ( Da tiempo y pistas ).		
<b>Tutoretzatua animatzen du</b> ( Da ánimos al tutorado)		
<b>Zalantzak argitzen laguntzen du</b> ( Resuelve dudas)		

Koebaluazio eta autoebaluazio txantiloia


AUTOEBALUAZIOA / IRAKURKETA		BAI	EZ
<b>Irakurri aurretik</b> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Izenburuari erreparatu diot eta istorioarekiko loturak egiten saiatu naiz.</li> <li>2. Testuak kontatuko dituenaren inguruko hipotesiak egin ditut.</li> <li>3. Irudiari erreparatu eta ipuinari buruzko hipotesiak egin ditut.</li> </ol>			
<b>Irakurtzen aritu naizenean</b> <ol style="list-style-type: none"> <li>4. Ulertu ez ditudan hitzak edo zatiak ulertzeko berriz irakurri dut, polikiago, edo laguntza eskatu dut (irakasleari, hiztegia...).</li> <li>5. Irakurtzen ari naizela irakurritakoa laburtzeko gai naiz.</li> <li>6. Gertaerak aurreratzeko gai izan naiz.</li> </ol>			
<b>Irakurri eta gero</b> <ol style="list-style-type: none"> <li>7. Narrazioaren gaia bereizten dut.</li> <li>8. Narrazioaren mezua bereizten dut.</li> <li>9. Narrazioaren ondorioa bereizten dut.</li> <li>10. Egileak kohesioa lortzeko erabiltzen duena ulertzen dut. (hiru atalak, elkamizketa-gidoiak, juntagailuak, denbora antolatzaileak)</li> <li>11. Testuaren erregistroa ezagutzen dut.</li> <li>12. Ipuinaren ideia orokorrak laburtu ditut.</li> <li>13. Testua ulertu eta gero, beste egoera batzuetara aplikatu dezaket.</li> <li>14. Nire iritzia azaldu dut, arrazoiak emanez.</li> <li>15. Egoera berri batekin beste ipuin bat idatzi dut.</li> </ol>			

*Irakurketa: autoebaluazio txantiloia.*

- Interneteko baliabideak erabili informazio iturri gisa zein irakurketa-jardueren euskarri gisa.

*Aplikazio digitala PISA probekin praktikatzeko*

- Interneteko tresnak erabili irakurketa-jardueren euskarri gisa. ADIa (Arbel Digital Interaktiboa), esaterako, testuak elkarrekin irakurtzeko erabil daiteke, lexiko berria kolore bidez nabarmenduz, paragrafoen ideiak laburbilduz ...



*ADIa ulermena lantzeko erabiltzen*

### **Ikastetxea. Liburutegia**

Ikasteko irakurketa garatzeko xedez, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, 113. artikuluan, honakoa zehazten du eskola liburutegiaren eginkizunaren inguruan: *“Eskolako liburutegiak lagungarriak izango dira irakurketa sustatzeko, eta ikasleek gainerako arloak eta jakintzagaiak ikasteko informazioa eta beste baliabide batzuk lortzeko eta horien erabilera kritikoan prestatzeko.”*<sup>6</sup>

Eskola liburutegia eskola orduetan erabiltzen bada, **informazioa eskuratzeari dagokionez ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzen da**, ikasleen artean egon litezkeen aldeak berdindu eta ikasteko baliabideak demokratizatu egiten baititu. Eskola orduetatik kanpo zabalik egoteak, berriz, ikasteko aukerak zabaltzen dizkio eskola-elkarteari.

Liburutegiaren antolakuntzak, bestalde, **denbora eta guneak** aurreikusi behar ditu, bertan ikasleek eta irakasleek ikas-jarduerak gauza ditzaten eta gune hori ikaskuntzarako eta irakaskuntzarako beste baliabide bat bezala erabil dezaten.



#### **Leku atsegina eta erakargarria**

izan behar du, ikasleek elkarrekin egoten eta lankidetzan aritzen ikasiko duten lekua, alegia. Bestalde, eremuka antolatuta egon behar du eta hala, isilik irakurtzeko, taldeka aritzeko, informazio inprimatua nahiz digitala bilatzeko guneak eduki...

Eskola liburutegiak ikastetxeko kide guztien esku jartzen ditu **eskolan landu eta erabiltzen diren hizkuntzetan** idatzitako dokumentu analogiko eta digitalak eta informazioa eskuratzeko aukera berdintasuna bermatzen du, batez ere gizartean presentzia urria duen hizkuntzan idatzitako testuei dagokienez.

Bestalde, bai informazioaren kantitatean bai kalitatean gizartean egun dagoen aldaketak eraginda, liburutegiaren erabilerak ikastetxeko kiden guztien esku-hartze koordinatua eskatzen du.

<sup>6</sup> LOE. [Hezkuntzako Lege Organikoa 2/2006, maiatzaren 3koa](#). 113.3 artikulua

Liburutegi-arduradunaren eta irakasleen arteko elkarlanari esker, ikasleak gero eta autonomoagoak izan daitezke **ikasketa-jarduera zehatzei lotutako informazioa hautatzen, erabiltzen eta komunikatzen**. Halaber, ikastetxeko liburutegia nola erabili jakiteak ikasleei lagunduko die beste edozein liburutegitan modu autonomoan ibiltzen.

Liburutegi-arduradunak, irakasleekin lankidetzan, **gune horren erabilera planifikatu** beharko du ikasleek informazioa bilatu, hautatu eta berrerabiltzeko trebetasunak gara ditzaten.

Liburutegiak ikastetxearen dokumentu funtsak biltzen dituen **dokumentazio-gunea** izan behar du. Horretarako, askotariko baliabideak (testu idatziak, ikus-entzunezkoak ...) eduki behar ditu, hainbat eratako euskarri eta formatutan eta, hartara, hainbat helburu eta xederi erantzungo dien irakurketa egiteko aukera eman.

**Ikastetxean erabili eta lantzen diren hizkuntzetan idatzitako testuak** bai eta inguruan erabiltzen direnak ere eduki behar ditu eta ezaugarri hori materialen funtsa eguneratzeko eta hautatzeko lehentasunezko irizpide gisa erabili.

Beharrezkoa da, bestalde, ikasteko eta irakasteko prozesuetan **ikastetxeko liburutegiaren** eta **gela-liburutegien arteko** loturak ezartzea, bai funtzionamenduan bai erabileran, bakoitzaren helburuak kontuan hartuz eta bien eginkizunak elkarrekin osatuz.

Ikasteko irakurketa garatzeko, curriculumeko arlo guztietan **liburutegia erabiltzea** eta askotariko informazio iturriekin lan egitea **eskatzen duten lan-proiektuak proposatzea** komeni da.

Errealitate berari buruzko **askotariko materialak** hainbat eratako euskarrietan kontsultatzeak informazioa hautatzea eta laburtzea eskatzen du eta horrek, jarrera kritikoa abiapuntu, testuaren aurrean iritzia ematera eta jarrera bat hartzera behartzen du.

**Liburutegiaren erabilera ikasteko eta irakasteko prozesuetan txertatzeak** prozesu horiek hobetzen laguntzen du eta informazioa ezagutza bihurtzen. Ikuspuntu horren arabera, eskola liburutegiak metodologia aldatzen lagun diezaieke irakasleei eta ikasleei, berriz, autonomia eta ikasten ikasteko gaitasuna garatzen.

## Ekintzak eta jarduerak

Liburutegiaren esparruan, ikasteko xedez egiten den irakurketa liburutegi-arduradunak irakasleekin elkarlanean bideratu behar duen prozesua da. Horretarako, hainbat jarduera proposatu eta kudeatu behar dira. Besteak beste, honakoak aipa daitezke:

- Liburutegi-arduradunaren, irakasleen, Guraso Elkartearen eta ikastetxeko beste kide guztien arteko elkarlana bultzatu, liburutegia eskola-elkarte guztiak erabiliko duen lekua izan dadin.
- Liburutegia kudeatzeari dagokionez, erantzukizunak banatu eskola-elkarteko eragile guztiek parte har dezaten.
- Liburutegiaren ordutegia ahalik eta gehien luzatu, eskola ordutegi barruan zein eskola ordutegitik kanpo, ikas-jarduerak egiteko leku irekia izan dadin



*Bertendona BHI*

- Ikasle-irakasleentzako protokolo bateratua adostu liburutegiko baliabideak eta guneak erabiltzeko. Bertan, honakoak zehaztuko dira, besteak beste:
  - liburuak mailegatzeko araudia

- liburutegiko guneak erabiltzeko araudia
- erabiltzaileen jokabidearen inguruko araudia.
- Hainbat jarduera antolatu liburutegi-arduradunaren gidaritzapean, ikasleek honakoak ikas ditzaten<sup>7</sup>: espazio hori nola dagoen antolatuta, zer nolako materialak eta baliabideak dituen, horiek guztiak hautatzeko era erabiltzeko prozesua zein den.
- Jarduerak proposatu, ikasleek dokumentu baliabideak sailkatzeko irizpideen inguruan iker dezaten, edo katalogoen antolaketaren inguruan ...
- Gela-liburutegiak sortu liburutegi-arduradunak aurrez egindako liburu eta dokumentuen hautaketatik abiatuta, eta aldiro eguneratu. Bertan bilduko dira ikasgai guztietako jarduerak egiteko gelan behar diren kontsulta liburuak.



- Irakasgai guztietan lan-proiektuak proposatu (proiektu globalak, diziplinartekoak, solidarioak, kooperatiboak...). Horiek gauzatzeko, ikasleek, banaka zein taldeka, askotariko testuak zentzu kritikoz irakurri beharko dituzte ezagutza berria eraikitzeko. Hartara, ikasleek honakoak egingo dituzte:
  - askotariko informazioa bilatu era askotako euskarrietan
  - mota askotako informazio-iturriak erabiltzen ikasi
  - eskuartean duten egitekoa burutzeko dokumentu egokiak hautatu
  - dokumentu horietako informazioa ulertu

<sup>7</sup> ARELLANO, V. (2002): *Liburutegia eta ikaskuntza autonomia*. Nafarroako Gobernua. Nafarroa. Blitz 3.



- dokumentu horietatik behar duten informazioa atera
  - hautatutako informazioa berregin eta berrantolatu
  - ikerketaren emaitza jakinarazi, komunikatu
  - bai prozesua, bai emaitza ebaluatu
- Ikasleei eta irakasleei eskola liburutegiko nobedadeak jakinarazi. Horretarako, hainbat estrategia erabil daitezke:
    - liburu eta material berriak liburutegiko toki finko batean erakutsi.
    - informazio-buletina familientzat eta irakasleentzat argitaratu, hilero edo hiru hilerik behin ...



## **Familiak eta Ingurua**

Hezkuntzaren Lege Organikoak Xedapen Orokorretan honakoa dio: “*Familiek hertsiki lagundu eta seme-alaben eguneroko lanaz eta ikastetxeetako bizitzaz arduratu behar dute.*”<sup>8</sup>. Hau da, azpimarratu egiten du familien eta ikastetxeen arteko lankidetzaren ikasleek eskola-arrakasta lortzeko funtsezko elementutzat.

Halaber, nazioartean, estatuan zein autonomia erkidegoetan egin diren ebaluazioek ondorioztatu dute familien eragina dela ikasleen eskola-arrakastarako giltzarrietako bat eta, horretaz gain, gurasoen ikasketa mailak puntuazio altuagoa dakarrela ikasleen irakurtzeko gaitasunaren emaitzetan. Beraz, ikastetxeak familiak inplikatu behar ditu ikasteko helburuz egingo diren irakurketa-jardueretan eta ikastetxean parte hartzeko aukera eman.

Inguruari dagokionez, berriz, indarrean dagoen curriculum markoak, Oinarrizko Gaitasunen garapenari lotutako planteamendutik abiatuta, aintzat hartzen du ikasleek ikasi egiten dutela bai testuinguru formal eta arautuetan, hau da ikastetxean, bai testuinguru ez formalean edo ez arautuetan, hala nola, inguruan eta familian. Hezkuntza, beraz, eskolatik eta familiarik harago doan ekintza da eta hiria, herria, ingurunea, alegia, bihurtzen da, egun, hezkuntza eragile eta hezitzaile. “Hiri hezitzaileak”<sup>9</sup> kontzeptuaz hitz egiten da eta ikastetxeek, beraz, modu planifikatuan erabili behar dituzte inguruan eskaintzen diren baliabideak.

Ikasteko irakurketa hobetzeko xedez, ikastetxeak familien partaidetza sustatu behar du zenbait ekimenetan, orientabideak eta laguntza eskainiz, haien ekarpenak jaso eta ikastetxera eramanez.

Ikastetxetik kanpo, inguruak ere askotariko baliabide erabilgarriak eskaini ditzake (liburutegiak, museoak, erakusketak...). Ikastetxeak aukera horiek guztiak baliatu behar ditu; izan ere, ikasleen heziketarako indar handiko baliabideak dira.

Familiek ere ingurua erabili behar dute eta hala, bizi diren herriak, auzuneak ... zer-nolako aukerak eskaintzen dituen jakin eta horietan parte hartu. Ikasbidea

<sup>8</sup> [Hezkuntzaren Lege Organikoa, LOE 2006, maiatzaren 3koa](#), Xedapen Orokorrak.

<sup>9</sup> Hiri Hezitzaileak ekimenaren medio hainbat gai sustatu nahi dira: hiritarrei informazio ulergarria ematea, hiritarren parte-hartzea, bizikidetzaren eta zibismoaren, osasunaren, eramangarritasunaren... e.a. [http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec\\_educating.html](http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec_educating.html)

da eta seme-alaben irakurtzeko gaitasuna hobetzeko aukera, ume, nerabe zein helduen herritartasuna bultzatzen du eta familia bizikidetzaz errazten du.

Goian esandako guztia kontuan hartuta, beraz, ikastetxeari dagokio honakoak egitea:

- ikasleen familiekin lankidetzaz proposamenak diseinatzea eta antolatzea
- inguruko eskaintza hezitzaileen berri izan eta horiek baliatzea
- aldi-aldi familiei informazioa helaraztea
- familiek ikastetxean parte-hartzea bultzatzea
- kanpoko erakundeak (udala, kultura-erakundeak, gizarte zerbitzuak...) ikastetxera joatea sustatzea

### Ekintzak eta jarduerak

Familien partaidetza bultzatzeko eta inguruko erakundeek eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzeko, honakoak egin ditzake ikastetxeak:

- Familiei argi eta zehatz eskatu seme-alaben irakurtzeko gaitasuna garatzen laguntzeko. Hartara, lankidetzaz-kontratuak edota irakasleen eta ikasleen arteko lankidetzaz konpromisoak proposa daitezke.

Ikastetxearen eta familiaren arteko lankidetzaz-kontratua

.....BHI

Honakoaren bidez, guk, ....., ikastetxe honetan ..... mailan ari den ..... ikaslearen amak/aitak/arduradunak, irakurtzeko gaitasuna hobetzeko eta tutoreari laguntzeko, behean adierazitakoak betetzen saiatuko garela adierazten dugu:

- Ikastetxeak eman dituen irakurketari lotutako aholkuak kontuan hartuko ditugu.
- Ikasteko eta irakurtzeko leku aproposa jarriko dugu.
- ...

Sinaturak eta data

Familia

Tutorea

*Kontratua familiekin. Eredu bat*

- Familiei orientabideak eman seme-alabei laguntzeko, hauek ikaskuntza-testuak modu eraginkorrean irakur ditzaten.

### Zer egin gure seme-alabek irakur dezaten?

- Lagundu, ez behartu.
- Eskolako lanen jarraipena egin.
- Irakurtzeko leku lasaia eta giro egokia jarri.
- Antolatzen lagundu: denbora, liburuak...
- Interesa erakutsi semeak edo alabak egiten duen horretan, ezagutzak eta liburuak partekatuz, interneten informazio bilaketak eginez....
- Adi egon eta zalantzak argitzen lagundu.
- Informazio eta kontsulta liburu egokiak aukeratu.
- Etxean askotariko informazio iturriak erabiltzeko aukera eman.
- Interneten lagundu eta elkarrekin nabigatu.

*Zenbait orientabide*

- Ikastetxeko liburutegiarekin lankidetzan, ikasgaiak lantzeko aproposak diren eta familiek etxean irakur ditzaketen irakurgaien eta materialen zerrendak<sup>10</sup> prestatu.

LEER EN ...

**MATERIALES DE LECTURA PARA LAS ÁREAS DEL CURRÍCULUM**

En este repositorio os ofrecemos materiales de lectura de distinta naturaleza y procedencia para que podáis leer con vuestro alumnado tanto en clase como en casa. Nuestro trabajo ha consistido en recopilar direcciones, recomendaciones y materiales que orienten al profesorado en la tarea de leer en todas las áreas del currículo. Gracias de antemano a todas la instituciones, centros de enseñanza y profesorado que nos han ayudado con su dedicación al mundo de la lectura.

			
<b>CIENCIA</b> Biología y Geología Física y Química	<b>CIENCIAS SOCIALES</b> Historia, geografía, Arte	<b>EDUCACIÓN FÍSICA</b>	<b>EDUCACIÓN PLÁSTICA</b>
			
	<b>FRANCÉS</b>	<b>INGLÉS</b>	<b>MATEMÁTICAS</b>

*Curriculumeko arloak: irakurketa materialak*

<sup>10</sup> <http://sites.google.com/site/materialesparaleer/home>

- Tutoretza bileretan irakurtzeko gaitasunari lotutako orientabideak eman eta orientabide horiek osatu proposamen eta jarduera zehatzekin<sup>11</sup>.
- Gurasoen Elkartearen (IGE) parte-hartzea eskatu ikasten ikasteko irakur-jarduerak garatzeko (materialak eta baliabideak erosi, material-hautaketan parte hartu...).
- Ikastetxeko web orrian edo ikasgelako blogean familiek parte hartu ahalko duten gunea sortu. Bertan, ikasgaiei lotutako material osagarriak partekatu ahal izango dituzte beste guraso batzuekin.
- Inguruko eskaintzaren berri izan eta irakurtzeko gaitasuna garatzen laguntzeko ekitaldirik egokienak aukeratu; ikasleen partaidetza bultzatu eta familiaena proposatu.



*Bidebarrietako (Bilbo) udal liburutegira bisita*

- Familiei ikastetxetik kanpo inguruak eskaintzen dituen kultura proposamenei buruzko informazioa helarazi seme-alabekin joan edota parte har dezaten (udal liburutegiak, erakusketak, era askotako ekitaldiak...)

---

<sup>11</sup> Bikoteka irakurtzen. Familientzako orientabideak



Hezkuntza-proiektuak. Guggenheim museoa

- Erakundeei (udal liburutegia, udala...) ikastetxera etorri eta bertako ohiko ekintzetan parte hartzeko eskatu.

## Irakurzaletasuna garatu

*“Irakurtzea birritan bizitzea da.”*

*Antonio Gamoneda*

Irakurzaletasuna garatzeak era askotako testuak askotariko xedeak lortzeko modu autonomoan irakurtzeko ohitura sustatu nahi du ikasleengan. Ohitura hori sendotzea eskolaren helburuetako bat da, irakurzaletasuna norberaren garapenean ez ezik, eskola arrakastan ere eragina baitu.

Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzek, bestalde, irakurriaren ulermenaren eta irakurtzeko interesaren arteko lotura estua erakutsi dute. Hala, bere borondatez, inork behartu gabe, disfrutatzeko irakurtzen dutela adierazten duten ikasleek lortzen dituzte emaitzarik altuenak testu digitalen eta testu analogikoen irakurketa-probetan<sup>12</sup>.

Irakurzaletasuna modu sistematikoan sustatu eta txertatu behar da ikastetxean jarduera antolatuen bidez, ikasleek irakurtzea behar duten zerbait dela sentiarazteko eta plazera eta ondo pasatzeko iturri gisa hartzeko. ‘Irakurri irakurtzeagatik’, plazererako irakurketan, norbere buruarekin gustura egoteko irakurketan ere hezi behar du eskolak.

Hori guztia lortzeko, jarduera-ardatz honetan ere, Bigarren Hezkuntzako irakasleei lagungarri izan dakizkiekeen orientabideak, ekintzak eta jarduerak proposatzen dira eta bi testuinguru hauek hartzen dira kontuan:

- ***Ikastetxea: ikasgela eta liburutegia***
- ***Familiak eta ingurua***

<sup>12</sup> PISA 2009 Euskadi. 2. txostena: *Aldagaien azterketa eta ikasleen irakurketako emaitzan duten eragina*. <http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2009/PISA2009-2txostena-aldagaien-azterketa.pdf>

## Ikastetxea. Ikasgela

Gizartearen gehiengoa bat dator ikasleengan irakurzaletasuna sustatzeko beharrezan aitortzean. Hori dela eta, ikastetxeak bermatu egin behar du derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan ikasle guztiak irakurle gaituak izango direla eta irakurtzeko aukerak izan dituztela, beraien familia-egoera eta egoera pertsonala edozein delarik.

Hala, irakurzaletasunari lotutako erabaki guztiak ikastetxearen curriculum-proiektuan jaso behar dira eta, horretaz gain, ikastetxeko beste proiektuek ere erabaki horiek islatu behar dituzte (Hobekuntza Plana, Hizkuntz Proiektua, Hizkuntza Normalkuntza Proiektua, Berrikuntza eta Prestakuntza proiektuak...); izan ere, ikastetxea da irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak antolatzen dituena. Halaber, erabaki horietan kontuan hartu behar dira, arrazoi asko tarteko, irakurmena behar bezala garatzeko zailtasuna duten ikasleak.

Pertsona helduen irakurketa-praktikak dira irakurzaletasuna garatzeko abiapuntu; izan ere, irakurtzera hurbiltzeko nahiz irakurtzetik urruntzeko arrazoiak berberak dira gazteengan zein helduengan. Besteak beste honakoak aipa daitezke: irakurgaiak aukeratu ahal izatea, irakurtzeko toki atsegina eta erlaxatua edukitzea, irakurritakoaz hitz egitea, irakurketa irakurri osteko eskolako lanekin ez lotzea...





Aldagai horiek bihurtzen dute **irakurketa komunikazio egintza borondatezkoa**, autonomia eta atsegina; eta irakurtzeko zaletasuna sustatzeko bidea zehazten dute.

Liburuak **hautatzeko askatasuna** behar-beharrezkoa da irakurtzea jarduera atsegingarria izateko eta eskatzen duen kontzentrazioa eta ahalegina merezi izateko. Irakurgai anitz eta askotarikoak eskura izateak aukera emango du ikasleentzako motibagarriak eta euren interesekin, zaletasunekin, irakurketa-mailarekin ... bat datozen liburuak proposatzeko, bai eta irakurtzeko oztopoak dituzten ikasleei material egokiak eskaini ahal izateko ere. Beraz, zenbat eta zabalagoa izan irakur- materialen eskaintza, orduan eta handiagoa irakurtzeko zaletasuna sustatzeko aukera.



Kultura Saila. Liburutegiak. Audioliburuak

Baina norberaren gustua garatzea, **irakurgaiak norberaren irizpideen arabera aukeratzea**, alegia, irakaslearen laguntza eta gidaritza eskatzen duen prozesua da, ikasleek, pixkanaka-pixkanaka, gero eta modu autonomoagoan, irakurgaiak hauta ditzaten.

Komenigarria da irakurtzeko **toki atsegina eta eroso prestatzea**. Ikasleei proposa dakieke irakurketa-espazio hori diseinatzen laguntzea.



*Ikastetxe bateko irakurketa txokoa*

**Bakarrik nahiz beste batzuekin batera irakur daiteke.** Irakurtzeak aukera ematen du nor bere buruarekin egoteko edota beste batzuekin ideiak, emozioak, iritziak, sentimenduak eta sentsazioak partekatzeko. Horren arabera, irakurketak partekatzeko jarduerak diseinatu behar dira, hala nola, liburuak maileguan uztea edo liburuak aholkatzeko aukera ematea; irakurle taldeetan parte hartzea; boz gorako irakurketak egitea; norberaren zaletasunen inguruan hitz egitea; irakurritakoaren inguruan aritzea, liburuak hizpide hartuta ...

Ikastetxean, bestalde, gehiegitan lotzen da irakurketa irakurri osteko jarduerekin (fitxak, laburpenak, kontrolak, hitzen zerrendak, glosarioak...), irakurritakoaren gaineko kontrola egiteko batez ere. Inoiz edo behin egin beharreko jarduerak badira ere, borondatezko irakurketa, **irakurri osteko lanik gabekoa** praktikatzeko aukera eman behar da.

### IRAKURLEAREN ESKUBIDEAK

*Irakurketa dela eta, guk, "irakurleok", geure egiten ditugun eskubideak, sarritan, irakurtzeko zaletasuna sustatu nahi diegun gazteei debekatu egiten dizkiegu:*

1. Ez irakurtzeko eskubidea
2. Orriak pasatzeko eskubidea
3. Liburu bat ez amaitzeko eskubidea
4. Berrirakurtzeko eskubidea
5. Edozer gauza irakurtzeko eskubidea
6. Edonon irakurtzeko eskubidea
7. Edonola irakurtzeko eskubidea
8. Liburuak gainbegiratzeko eskubidea
9. Ozen irakurtzeko eskubidea
10. Liburu bat irakurri eta isilik geratzeko eskubidea

*Nobela bat bezala. Daniel Pennac*

## Ekintzak eta jarduerak

Irakurzaletasuna garatzea ikastetxearen lehentasunezko ekimena izan behar da eta horrek ikastetxeko kide guztien lan koordinatua eta sistematizatu eskatzen du. Horren arabera, honakoak behar ditu:

- Irakasle guztien inplikazioa; izan ere, irakurmena ez dagokio ikasgai jakin bati baizik eta eskola-elkartea osoari, berau baita irakurri egiten duena eta irakurtzera bultzatzen duena.
- Irakasle guztien eginkizuna indartu irakurle eta irakurketa-erreferentzia gisa. Irakasleak bere irakurketak ikasleekin partekatzen baditu eta irakurritakoaren gainean hitz egiten badu, irakurketa-esperientzia hori irakurtzeko erreferentzia bihur daiteke ikasleentzat eta irakurle ibilbidea eraikitzen lagunduko die.
- Irakurtzeko gune eta giro aproposak planifikatu ikasgelan, liburutegian, ikastetxeko beste txoko batzuetan, patioan... Irakurtzeko gune horiek ikasleen laguntzaz dinamizatu eta egokitu daitezke. Hori guztia egiteko aurrekontuaren diru partida bat esleitu beharko da.



*Gernika BHIko liburutegia*

- Irakurketa-denbora planifikatu, erreserbatu eta Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculumaren Dekretuaren 12. artikuluan adierazitakoa bete: "*Irakurketa ezinbesteko faktorea da oinarrizko gaitasunak garatzeko eta*

*komunikaziorako gaitasuna sendotzeko. Ikastetxeek ikasgai guztien hezkuntza-jardueran bermatu behar dute irakurketari eskainitako denbora, maila guztietan.*<sup>13</sup>

- Ikastetxearen irakurgaien funtsa aztertu eta handitu, liburutegi-arduradunarekin lankidetzan. Ikastetxeak askotariko testuak, eguneratuak eta ondo hautatuak eduki behar ditu, ikastetxean ikasi eta irakasten diren hizkuntzetan idatziak, testu-tipo askotarikoak eta hainbat euskarritan. Halaber, irakurtzeko oztopoak dituzten ikasleentzako laguntza-sistemak eduki behar ditu.




EIBZ: Materialak. Nafarroako Hezkuntza Saila


- Inguruan presentzia txikiagoa duen hizkuntza ofizialean idatzitako liburuen kopuru nahikoa izatea bermatu. Era berean, liburutegiak ikastetxean eta inguruan erabiltzen diren beste hizkuntzetan idatzitakoak ere eduki beharko lituzke.

<sup>13</sup> [LOE. Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa](#), 12. artikulua.

- Irakurgaiak hautatzeko irizpideak adostu liburutegiko arduradunarekin lankidetzan. Irizpide gisa, besteak beste, honakoak aipa daitezke: ikastetxean lantzen diren baloreak kontuan hartzea, irakurleen motibazioa eta interesa, ikasleen iritzia, testuen kalitatea ...
- Irakasgai guztien programazioan askotariko irakurgaiak proposatu. Irakurzaletasuna ez dago zertan lotuta egonik literaturarenganako edo beronen genero batenganako zaletasunari, baizik eta beste testu-genero asko ere hartu ahal ditu, hala nola, informazio liburuak, entziklopediak, aldizkariak, komikiak... bai formatu analogikoan, bai formatu digitalean.



1. Cambio climático 2001 : informe de síntesis / Editado por Robert T. Watson
2. La venganza de la tierra : por qué la tierra está rebelándose y cómo podemos todavía salvar a la humanidad / James Lovelock
3. Zure etxea, zure planeta = Tu casa, tu planeta / Joseba Martínez
4. 24 ordu euskal ekologiaren arazoetan / Joseba Imanol Lugaresareati
5. Tierra nuestra, vida nuestra : Diario de un naturalista distraído / Luis Miguel Domínguez
6. La muerte silenciosa: España hacia el desastre ecológico / Joaquín Araujo
7. Giza ekintzen eragina Euskal Herriko ingurugiroan / Antton Azkona
8. El efecto invernadero : el desastre de mañana hoy / Jon Erickson
9. La capa de ozono, la Tierra en peligro / Marshall Fisher
10. El efecto invernadero y Gaia / John Gribbin
11. El impacto humano sobre el clima / John maunder
12. Atmósfera, tiempo y clima / Roger G. Barry
13. Energías renovables / Mario ortega Rodríguez
14. Energía eólica practica / Paul Gipe
15. El automóvil en Bizkaia / Miguel Martín Zurimendi
16. El libro del reciclaje / Alfonso del Val
17. Guía practica de la bicicleta / John Wilcoxon
18. Bizikletak, herik gabeko hirietara = En bici hacia ciudades sin malos humos / J. Dekoster, U. Schollaert
19. La economía del Hidrogeno : la recreación de la red energética mundial y la redistribución del poder en la Tierra cuando se agote el petróleo / Jeremy Rifkin



Páginas web Web orriak

**Red Española de Ciudades por el Clima**  
<http://www.redciudades.com>  
**International Panel for Climate Change (IPCC)**  
<http://climate.nasa.gov/>  
<http://www.ipscc.ch>  
<http://www.ipscc.ch/pressroom/pressroom.html>  
**Ciudades venidas de cambio climático**  
<http://www.ciudadesvenidas.com>  
**Ministerio de Medio Ambiente - Cambio Climático**  
[http://www.mma.es/portal/tema/mma/cambio\\_climatico/](http://www.mma.es/portal/tema/mma/cambio_climatico/)  
**Comisión Europea, Cambio Climático**  
<http://www.clima.europa.eu/>  
**Blog sobre el cambio climático**  
<http://www.blog-cambio-climatico.com/>  
**Web de ADEGVVWHF sobre el cambio climático**  
<http://www.cambio-climatico.net/>  
**Oficina venida de cambio climático**  
<http://www.ipscc.ch/pressroom/pressroom.html>  
**Web de Ciudades por el Clima**  
<http://www.ciudades.com/>  
**Web de Ecologistas en Acción sobre el Cambio Climático**  
<http://www.ecologistas.org/>  
**Una alternativa desde el transporte**  
<http://www.motorcycles.com/blog/la>  
**No coches de clima, coches hot**  
<http://www.no-coches-clima.com/>  
**Frontera al cambio climático**  
<http://www.fronteraalclimaticoenel.org/>  
**Español Cambio Climático. Diario El Mundo**  
<http://www.elmundo.es/tema/clima/2007/03/tema-clima/cambio-climatico/>

**Novelas Eleberriak**

**Estado de miedo** / Michael Crichton (Plaza y Janés)  
**El rebaño ciego** / John Brunner  
**El nombre del mundo es bosque** / Ursula K. Leguin

**Novelas Eleberriak**


**Balearen lakua** / Midas Dekkers  
**Historia de una gaviota y el gato que le enseñó a volar** / Luis Sepúlveda  
**Azeri beltza** / Betsy Byars  
**Lore erradioaktiboak** / Agustín Fernández Paz  
**Lau katu** / Enrique Ventura

**Infantil y Juvenil Haur eta Gazte**

1. 50 cosas sencillas que los niños pueden hacer para reciclar
2. El clima / Lorenzo Pinna
3. La basura y el reciclaje / Stephanie Turnbull
4. El agujero de la capa de ozono : sus causas y sus efectos sobre el medio ambiente y la humanidad / Jane Walker
5. Atmosfera en peligro : sus causas y sus efectos sobre el medio ambiente y la humanidad / Jane Walker

**Películas Filmak**

- Una verdad incómoda – USA, 2006
- La bicicleta – España, 2006
- La pesadilla de Darwin - 2004.



Biblioteca Municipal de Ermua  
Erasmus Udal Liburutegia

## KLIMA ALDAKETA

Gai baten inguruko irakurgaiak eta beste baliabide batzuk

- Irakurgaiak eta liburuak hautatzeko irizpide pertsonalak zehazten lagunduko duten jarduerak diseinatu. Esaterako, liburu zerrendak eskain daitezke titulu bakarraren ordean, edo proposatutako irakurgaien iruzkinak edota laburpentxoak irakurgaien edukiari buruz orientatzeko...

**LECTURAS CON EFECTOS SECUNDARIOS:**  
Una selección de libros para jóvenes

Tienes entre las manos material peligroso. Puede provocar deseos inalcanzables, alterar tus sueños, someter tu voluntad...

Seguro que el indudable atractivo de algunos libros te resultará tentador. Es posible, incluso, que algunos personajes consigan hechizarte y te arrastren en su aventura. Antes de que eso suceda debemos advertirte: a veces un libro te lleva a otro libro y éste a otro más... Sin darte cuenta puedes caer en una infinita espiral de lectura y tú no quieres que eso suceda ¿o sí?

Es cierto que hay quien lo prueba y después lo deja sin problemas, pero cuando se trata de buenos libros, resulta arriesgado jugar con fuego... A lo mejor te aficianas a leer y eso no se cambia así como así.

Ahora tú tienes la palabra.

- [Sed de aventuras](#)
- [Ataques de interrogación aguda](#)
- [Sonrisa permanente](#)
- [Crítica social](#)
- [Hipertensión argumental](#)
- [Delirios del pasado](#)
- [Un laberinto de lecturas sin fin](#)

Selección bibliográfica elaborada por el Equipo de Promoción de la Lectura del Centro Internacional del Libro Infantil y Juvenil  
Diseño de...

Puedes encontrar más sugerencias de lectura en:

Fundación Germán

*Lecturas con efectos secundarios.  
Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa*

**Ezinbestekoak**

Adina: 14tik gora

Bilaketaren emaitza:  
10 argitalpen aurkitu dira

**33 kilo esperantza**  
Egilea: Anna Gavaldà  
Argitaletxea: Alberdania  
2004

**Izenburua**  
Egilea: R.L. Stevenson  
Argitaletxea: Elkar  
2008

Behinola  
Haur eta Gazte Literatura Aldizkaria

idazLe gaztea

oularretik mintzora

*Ezinbestekoak. Nerabeentzako liburuak  
Galtzagorri Elkarte.*

- Irakurketa-teknika eta estrategia anitz planifikatu, helburu gisa irakurketa bera izanik, irakurri osteko lan edo eskola egitekoei lotu gabe; izan ere, sarritan, eskola-lan horiek irakurketa indargabetu egiten dute eta ikasleek interesa galtzea dakarte.... Besteak beste, honako teknikak eta estrategiak proposa daitezke:
  - **Solasaldi literarioak.** Eskola-elkarteko nornahik har dezake parte (irakasleak, ikasleak, gurasoak, irakasleak ez diren langileak ...). Parte-hartzaileak koordinatu egiten dira denek irakurriko duten literatur liburua hautatzeko. Gogoetak, zalantzak, interes guneak eta interpretazioak partekatzen dituzte eta elkarrekin hitz egiten dute irakurritakoa abiapuntu izanik. Gogoeta eta interpretazio guztiak baliagarriak dira eta testuaren zentzua aberasten dute.

Solasaldi literarioen metodologia sinplea da:

- Parte-hartzaileek aurrez adostutako liburu bat irakurtzeko konpromisoa hartzen dute (50 orrialde inguru) eta atentzioa eman dieten paragrafo batzuk aukeratu (lau edo bost).
- Gero, egun eta ordu jakin batean elkartzen dira liburua oinarritzat hartuta hitz egiteko. Hitz egiteko txandak adostu egiten dira eta beharrezkoa ikusten bada moderatzailea izendatu.
- Parte-hartzaileek bere ustetan liburuaren pasarte esanguratsuenetatik abiatuta eta aipatuta bere ikuspegiak plazaratuko dituzte. Ez dago ordena zehatzik testu txatalen inguruko iritziak emateko.
- Idazkariak aktan jasoko ditu esku-hartzeak eta hausnarketak. Saioan pertsonaien zein literatur tekniken edo gizarte mugimenduen inguruko datu ezezagunak azaldu bada, norbaitek idatzi eta hurrengo tertulian datu horiei buruzko informazioa ekarriko du taldekideei azaltzeko.

*Ikaskuntza dialogikoa. Klasikoen irakurketa solasaldi literarioen bidez*

- **Boz gorako irakurketa.** Irakasleak edota ondo irakurtzen dakiten ikasleek egindako boz gorako irakurraldi on batek irakurketaz gozatzeko aukera ematen du; irakurtzen duenarentzat jarduera atsegina eta entzuten duenarentzat atsegingarria da. Boz gorako irakurketa

ikastetxeko liburutegian edota ikasgelan egin daiteke. Ondo hautatu behar dira irakurri eta partekatuko diren testuak eta entrenatu egin behar da irakurraldia eraginkorra eta ona izan dadin.



*Entzuten irakurtzeko gunea. Irakurzaletasuna sustatzeko ekimena.*

- **Sei irakurle testu baten bila**<sup>14</sup>. Irakurketa-jarduera hau taldeka egiten da, ikasleak seiko taldetan bildurik. Taldekide bakoitzak zeregin bat du egokituko zaion irakurketa-xedearen arabera.

Irakasleak proposatuko ditu rolak:

- **Irakurlea.** Testua ozenki irakurriko du. Ikasle guztiek izango dute testuaren kopia.
- **Detektibea.** Eten egingo du ongi ulertzen ez dituen hitzak edo 'zailak' direnak entzuten dituenean.
- **Galdetzailea.** Entzun ahala, bere iritziz falta diren datuak galdetuko ditu. Testua behar bezala ulertu ahal izateko egin beharko lirakeen galderak egingo ditu.
- **Kazetaria.** Testuaren atalak laburtuko ditu eta taldekoen oroimen gisa funtzionatuko du.
- **Jakintsua.** Irakurzailea erlazionatuko du beste ideia, beste informazio edo datu batzuekin, bere iritziz interesgarriak direnekin.
- **Igarlea.** Irakurzailea noizik behin edo amaiera baino lehen gelditu egingo da eta igarlea atal horren edo testuaren amaiera igarriko du.

*Liliana Tolchínsky, Mabel Pipkin*

<sup>14</sup> Aula de Innovación Educativa, 39. alea. 15-19 orr.



- **Giza-liburuak**<sup>15</sup>. Proposamen honek hitzak eta irakurketa beste pertsona batzuekin, entzuleekin, lotzen ditu. Ekimenean parte hartuko duen irakurleak liburua balitz zein liburu edo zein testu izango litzatekeen pentsatu behar du. Gero, testu edo liburu horretako txatal bat aukeratu ongi irakurri, ulertu eta buruz ikasiko du. Hala, giza-liburu bihurtuko da eta beste pertsona batzuei errezitatuko die buruz ikasitakoa. Jarduera hau aurrez planifikatutako eta antolatutako parametroen arabera gauza daiteke, esaterako, literatur testuak hauta daitezke eta egun berezi batean edo ospakizunen batean, giza-liburuek ikasitako pasarteak errezitatuko dizkiete bertaratuko direnei.
- Irakurtzeko zaletasuna garatzeko ikastetxeko kide guztien parte-hartzea bultzatuko duten jarduera orokorrak antolatu. Besteak beste, honakoak aipa daitezke:
  - **Lehiaketak** antolatu edota horrelakoetan parte hartu: Literatur esloganak, irakurketaren inguruko horma-irudien lehiaketak...



*Literatura maratoia*

<sup>15</sup> Fahrenheit 451 proiektua: <http://www.personaslibro.org/>

- Liburutegietara, liburu-dendetara, irudigileen tailerretara **bisitak egin**.
- Egun berezietan **ospakizunak** antolatu: Euskararen Nazioarteko Eguna (abenduaren 3an), Liburuaren Eguna (apirilaren 23an), Ingurugiroaren Eguna (ekainaren 5ean), Hizkuntzen Nazioarteko Eguna (irailaren 26an)...
- **Idazleak Ikastetxean** ekimena bultzatu. Idazleekin edo irudigileekin topaketak egin eta irakurritako liburuen gainean hitz egin.



*Anton Kazabon idazlea ikastetxean*

**Ikastetxea. Liburutegia**

Liburutegiak, ikasgelatik kanpoko espazio gisa, irakurketaren aldeko apustua egiteko aukera ematen dio eskola-elkarteari. Funtsezko eginkizuna du irakurzaletasunaren garapenean ikasleek nahierara irakurri, arakatu, aztertu edo baztertu ahal dituzten testu, liburu eta baliabide asko jartzen baititu beraien esku doan. Irakurzaletasuna sendotzeko abiapuntua, hein handi batean, irakurlea irakurtzeko librea dela onartzetik dator.

Liburutegiaren helburuak ikastetxeko agirietan jaso behar dira (Hizkuntza Proiektuan, Hobekuntza-Planean, Hizkuntza Normalkuntza Proiektuan, Urteko Planean); izan ere, klaustroak bere egiten dituen dokumentuak dira eta ikastetxea antolatzen laguntzen duten egitasmoak, ekimenak ... biltzen dituzte.

Liburutegiak era askotako materialak izan behar ditu, irakurtzeko denbora eta eremuak eskaini, eta ikasleen eta inguruan dituztenen irakurtzeko jarduerak dinamizatu.

Irakurzaletasuna garatzen laguntzeko, **liburutegiko materialak askotarikoak** izan behar dira, **formari zein edukiari** erreparatuta. Horrenbestez, material inprimatua eta ikus-entzunezkoa, euskarri digitalean eta analogikoan eduki behar ditu, bai eta irakurtzeko oztopoak dituzten ikasleentzako baliabideak ere. Bestalde, era askotako estrategiak abiarazi behar dira bertan dituen baliabideak ikastetxean ezagutarazteko.

**Materialen funtsa** sortzeko, eskola-elkartearen (gurasoak, ikasleak, irakasleak, langile ez-irakasleak...) interesak eta eskaerak hartu behar dira kontuan eta irizpide horien arabera **hautatu**. Halaber, beste elkarte, erakunde edo liburutegi batzuen aholkularitza baliatu behar da, ikastetxeak dituen beharrezan asetze aldera.

**Ikastetxean erabiltzen eta ikasten diren hizkuntzetan idatzitako testuak** (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa) nahiz eskolan eta inguruan dauden hizkuntzetakoak eduki behar ditu eta irizpide horri lehentasuna eman materialen funtsa eguneratzeko eta hautatzeko.

Liburutegiak ikasleak eta irakasleak modu sistematikoan bertaratzeko aukera eman behar du **bai eskola ordutegiaren barruan, bai eskola ordutegitik**

**kanpo.** Eskola orduetatik kanpo liburutegia zabalik egoteak aisialdirako aukerak zabaltzen dizkio eskola-elkarteari.

**Leku atsegina, erakargarria eta abegikorra** izan behar du, ikasleek elkarrekin egoten eta lankidetzan aritzen ikasiko duten lekua, alegia. Bestalde, eremutan antolatu behar da, eta hartara, isilik irakurtzeko zein taldeka aritzeko guneak izan behar ditu, idazleekin topaketak, solasaldi literarioak ... egiteko, informazioa interneten bilatzeko...e.a.

Ikastetxean proposatzen diren **ekimen asko liburutegian zein ikasgelan gara daitezke**, betiere ikastetxearen antolakuntzaren arabera. Hala, ikastetxeak lanaldi osoan arituko den liburutegi-arduraduna baldin badu, beronek hartuko du, irakasleekin lankidetzan, atal honetan aipatzen diren ekintza eta jarduera guztiak diseinatzeko eta planifikatzeko ardura. Liburutegiak ordutegi murriztua baldin badu, ordea, liburutegian arituko diren pertsonen artean (gurasoak, irakasleak, langile ez-irakasleak...) banatuko dira eginkizun horiek.

Liburutegi-arduradunak liburutegia dinamizatu eta mugiarazi egin behar du eta **irakasleekin bateratze puntuak bilatu**, irakurtzeko gaitasuna garatzeko baliagarriak izan daitezkeen jarduerak elkarrekin egiteko.

Liburutegian egingo diren **irakurketa-jarduerei dagokienez, askotarikoak eta erakargarriak** izan behar dira, irakurleak motibatuzko xedez, eta era askotako taldekatzeak egiteko aukera eman behar dute.

Liburutegi-arduraduna saiatuko da, irakasleekin lankidetzan, **ikasketa-jarduera horiek testuinguru batean txertatzen**. Halaber, jarduerok **xede desberdinak** izango dituzte, **ikastetxean lantzen diren hizkuntzetan** proposatuko dira eta **hainbat eratako euskarrietan** gauzatuko dira.

## Ekintzak eta jarduerak

Ikasleengan irakurzaletasuna garatzeko xedez eta liburutegiaren esparruari dagokionez, liburutegi-arduradunak irakasleekin elkarlanean bideratu behar duen prozesua da irakurketa. Horretarako, jarduera hauek proposa eta kudea ditzake:

- Aurrez egindako liburuen hautaketatik abiatuta, gelako liburutegiak sortzen lagundu eta aldiro eguneratu. Gelan, hainbat jarduera gauza daitezke, hala nola, liburu bat hautatu eta ikasleei hautaketaren zergatiak azaldu, liburuen aurkezpenak egin, irakurgaien paragrafo batzuk irakurri eta ikasleak irakurtzera animatu...
- Ikasleei eta irakasleei ikastetxeko liburutegi funtsaren nobedadeak jakinarazi. Horretarako, hainbat estrategia erabil daitezke:
  - Material berrien ahozko aurkezpenak egin.
  - Liburutegiko toki finko batean azken nobedadeak erakutsi.
  - Familientzako eta irakasleentzako informazio-buletina idatzi, hilero esaterako, eta posta bidez helarazi edo ikastetxeko web gunean ikusgai jarri.



- Aldiro eta modu sistematikoan solasaldi literarioak antolatu liburutegian.

### SOLASALDI LITERARIOAK

- Moderatzailea liburutegi-arduraduna da. Ikasleak dira irakurketa dialogikoaren protagonistak.
  - Liburutegi-arduradunak bost bat testu (liburu) aukeratzen ditu, taldearen ezaugarrien arabera.
  - Taldeak, aurrez aurkeztutako liburuetako bat aukeratuta, hurrengo saiorako orri kopuru jakin bat irakurtzeko konpromisoa hartzen du.
  - Irakurleak testua irakurri eta atentzioa eman dion paragrafoa edo testu txatala aukeratzen du.
  - Hurrengo saioan, irakurleek hautatutako pasarteei buruz hitz egingo dute; hautaketaren zergatiak azalduko dituzte talde handian.
  - Elkarrizketa bultzatzen da irakurritakoari buruz. Denek hartzen dute parte, iritzi guztiak baliagarriak dira.
  - Moderatzaileak zaintzen du parte-hartzaileen interakzioa, errespetua eta elkarrekiko jokabidea.
- Idazleekin edo irudigileekin elkarrizketak eta saioak antolatu, irakurritako liburuen gainean aritzeko. Idazlearekin egingo den elkarrizketari behar besteko garrantzia eman behar zaio eta, horrenbestez, ondo prestatu behar da: liburuari buruzko iritziak, liburuak sorrarazitako ideiak, sentimenduak sentrazioak eta iradokizunak partekatu; idazlearekin edo irudigilearekin egingo den saiorako galdetegia denak elkarrekin prestatu...
  - Parekoen artean irakurliburuak gomendatzeko jarduerak antolatu. Horiexek izaten dira, sarritan, jarduerarik eraginkorrenak; izan ere, ikasleek interesen unibertso bera partekatzen dute. Gainera, liburua aurkezten duen ikasleak ideiak laburtzeko, azalpena emateko eta ahoz adierazteko gaitasuna garatzen du. Liburu gomendio hauek aurrez aurre egin daitezke nahiz internet bidez eta hala iritziak ikusgai edo entzungai jarri.

The screenshot shows a website interface. At the top, there's a navigation bar with 'Home', 'HONI BURUZ', 'GURE IDATZIAK', 'BILAKETA: Irakurketak', 'BILAKETA: Erleak', and 'ERDI'. Below this is a search bar with the text 'Compartir Informar sobre mal uso Siguiete blog'. The main content area features the title 'gazte literatura' (youth literature) and a subtitle 'ARALAR BHIko ikasleok irakurtzen ditugun liburuak eta beraiei buruzko gure iritziak.' To the right, there's a sidebar with the heading 'Irakurlearen txokoa' (Reader's Club) and 'euskaljakintza'. The sidebar lists various categories like 'Aurtengo irakurke orokorrak', 'Baldintzak eta arauak', 'Orain arte irakurtutakoak', 'Aurtengo hauek', 'Oinarrizko gida', 'Gida luze', 'Aldizkari irakurketa', 'Ikaslearen irakurketa', 'Liburuen irakurketa', and 'Argemutua 2'. Next to the sidebar is a photograph of a person reading a book in a library setting, with the caption 'Monica Reading by Anne Belov c.a.2000'.

Liburu gomendioak. Irakurketa lantzen

- Aldian-aldian, askotariko gaien inguruko erakusketak egin. Hainbat irizpide edo xederen arabera antola daitezke erakusketa horiek, esaterako, idazleen edo irudigileen liburuak erakusteko edo jai ospakizunen edo egun seinalaturen bat azpimarratzeko, efemerideak, inguruko kultura-ekitaldiren bat, hedabideetako albistiren bat...
- Efemeride eta egun berezi batzuetan ikasgelan jorratu ezin diren jarduerak antolatzea eta, pizgarri moduan, eskola-elkartearen esku-hartzea sustatzea:
  - Euskararen egunean, literatur testuak irakurri eta entzun, errezitaldiak antolatu, horma-irudiak egin...
  - Bioaniztasunaren Nazioarteko egunean, esaterako, desagertzeko arriskuan dauden animalia espezieak mundu-mapa erraldoi batean kokatu; ura aurrezteko aholkuekin informazio horma-irudia egin; edo energia berriztagarrien ingurukoa...e.a.
  - Bakearen Egunak, berriz, aukera ematen du gatazka eta gerra bizi duten herrialdeetako protagonistak dituzten liburuak aurkezteko...
- Irakurritako testuak moldatzeko eta berrerabiltzeko proposamenak, "Literatur Tailerren" gisakoak, bultzatu. Kontuan harturik, irakurketa eta idazketa oso lotuta dauden arren, irakurri osteko idatzi beharrak ekar dezakeela irakurketaren helburu behinenetik ikasleak urruntzea, irakurri irakurtzeagatik, alegia.

“Nonbait irakurri dut, ez dut gogoratzen non baina, literatura tailerretan, nik nahiago sormen tailerra esan, idaztearen artean trebatu nahi dutenak informatu, ikasi eta motibatu egiten dituztela. Ez nintzateke zintzoa izango hori horrela ez dela esango banu, baina horrelako tailerretan, batez ere, lagundu egiten da; izan ere, era guztietako istorioak asmatzeko joera erabatekoa ia erortzerainokoa ez badago, hau da, norberaren motibazioa ez badago, ezer gutxi egin dezake nire lekuan dagoen batek”.

*Rodolfo Tornello*

- Askotariko testuak era askotako euskarrietan boz gora irakurri. Irakurtzeko era hau ondo planifikatuta egon behar da bai guneei, bai denborari dagokienez, eta ikasleen intereseko testuak proposatu. Gomendagarria eta interesgarria da ikastetxetik kanpoko pertsonak ekartzea.

### **BOZ GORAKO IRAKURKETA**

- Jarduera hau liburutegian egiten da.
  - Liburutegi-arduraduna eta irakasleak dira arduradunak.
  - Liburutegi-arduradunak aukeratzen ditu testuak.
  - Irakasleak egiten du irakurketa adierazkorra.
  - Irakurketak 10 -15 minutu irauten du.
  - Irakurketa eten egiten da gertatuko denaren inguruko hipotesiak egiteko, emozioa, irrika eta interesa sorrarazteko.
  - Helburua entzutea eta irakurtzen segitzeko nahia sortzea da.
- Testuak irakurri eta dramatizazioak, errezitaldiak eta antzezpenak egin. Dramatizatuz irakurtzea (antzezlanak, narrazioen moldaketak, elkarrizketak...) testuari modu kooperatiboan hurbiltzeko proposamen erakargarria izan daiteke ikasleentzat. Aurrez landu behar da, eta oso baliabide egokia da ahozkotasanaren ezaugarriak jorrazteko.





*ipuin kontalari saioa ikastetxean*

**Familiak eta Ingurua**

Irakurtzeko zaletasunak irakurketaren esperientzia bikarioa du oinarri, hau da, irakurle trebeek irakurtzeko gai ez direnei irakurtzea, testuak deszifratzen ez dakitelako edota testuak bakarrik ulertzeko gauza ez direlako, eta errazago sendotuko da irakurtzeko ohitura duen eta era askotako testuak (liburuak, aldizkariak, egunkariak, testu digitalak ...) irakurtzeko aukera ematen duen familia giroan.

Bestalde, ikastetxean parte har dezaketen kanpoko erakundeek bultzatutako ekimenek ere irakurzaletasuna sustatzen lagun dezakete, batez ere familiei eta ikastetxeari esku-hartzeko aukera ematen badiete.

Atal honetan orientabideak eskaintzen dira eta jarduerak eta adibideak aurkezten dira ikastetxearen, familiaren eta inguruaren arteko lan partekatua sendotzeko.

**Familiaren eta ikastetxearen lankidetzak** behar-beharrezkoa da ikasleengan. irakurzaletasuna sendotzeko. Horregatik, ikastetxeak familiak inplikatu behar ditu helburu hori lortzeko egingo diren irakurketa-jarduera guztietan. Tutoretza bilerak, tutorearekin egingo diren banakako bilerak, ikastetxeko informazio-orriak eta jakinarazpenak baliatu daitezke ikastetxean burutuko diren ekintzen inguruko informazioa eman eta familien laguntza eskatzeko, irakurzaletasunaren inguruko ekimenak antolatu zein garatu behar direnean.

Ikastetxeari dagokio, liburutegiarekin lankidetzan, **familietikiko lankidetzak proposamenak garatzea eta antolatzea**, bai eta ikasleei esku-hartzeko aukera ematea ere.

Inguruari dagokionez, **ikastetxeak inguruan zer-nolako baliabideak dituen eskura jakin behar du**, horietan parte hartu eta horiek baliatu. Horretaz gain, erakundeei laguntza eska diezaieke baliabide materialak emateko ez ezik, ikastetxean bultzatuko diren ekimenetan parte hartzeko ere.

Ikastetxeak, bestalde, eskolatik kanpo, inguruko erakundeek eskaintzen dituzten **kultura ekimenen berri eman behar die familiei**, baliabide horiek erabiltzera bultzatu eta esperientzien trukaketa sustatu.

## Ekintzak eta jarduerak

Familien partaidetza bultzatzeko eta, ikastetxetik kanpo, erakundeek eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzeko, ikastetxeak jarduera hauek egin ditzake:

- Gurasoei irakurketaren inguruko gogoeta eginarazi eta familiak irakurzaletasuna garatzeko duen erantzukizuna ikustarazi. Horretarako, orientabideak eman daitezke eta gurasoen laguntza eskatu.

### ZER EGIN GURE SEME-ALABEK IRAKUR DEZATEN?

- Ez behartu irakurtzera.
- Liburuak eskura jarri.
- Liburu dendetara, liburu azoketara, erakusketetara...beraiekin joan.
- Liburutegiko bazkide egin.
- Ohitura bihurtu.
- Zalantzak argitu.
- Liburuak aukeratzeko askatasuna eman; libururik ez debekatu.
- Adin bakoitzari dagokion liburua eskaini.
- Gazteen zaletasunetara egokitu.
- Beraiekin irakurri.
- Irakurketak konpartitu.
- Ez debekatu aisialdirako bere gustuko beste aukera batzuk.

*Familientzako aholkuak*

- Ikastetxeko liburutegiarekin lankidetzan, irakur liburuen zerrendak prestatu: etxean irakurtzeko, oparitzeko, helduekin ikasleek parteka ditzaketen liburuak gomendatzeko...



*Hernaniko Udal Liburutegiko katalogotik hartua*

- Tutoretza bileretan familiei orientabideak eman, irakurriaren ulermenaren garrantzia azpimarratzeko eta etxean egin daitezkeen irakurketa partekatuaren inguruko jarduerak azaltzeko.
- Irakurketa partekatua bultzatu ikastetxeko eta inguruko beste pertsona batzuekin, Solasaldi Literarioen edo Ikas Komunitateen estrategiak aplikatuz.



*Gurasoekin irakurketak partekatzeko esperientzia.*  
<http://www.youtube.com/watch?v=3rgtRH-mssc>

- Ikastetxeko liburutegiarekin lankidetzan, Guraso Elkartearen laguntza eta inplikazioa eskatu irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak ezartze aldera (materialak erostea, materialak aukeratzean parte-hartzea)
- Ikastetxean gune digitala sortu familiek beren irakurketa-esperientziak elkarrekin parteka ditzaten.

**LIBURUTXIKI (0-6) Gurasoak gurasoei liburuak gomendatzen.**

Liburukodi Juul kanpainaren barruan sortutako ekimena da. Irakurzaletasuna bultzatu nahi dugunon artean ezinbestekoa kusten dugu gurasoen papera zeregin honetan. Liburutxiki blogetik gurasoak garenok beste gurasoei liburuak gomendatu nahi dizkiegu, gure seme-alabekin izandako esperientzian onarturik. Hemen agertuko diren liburuak edozeinentzat izango dira gomendagarriak baina batez ere 0-6 urteko haurrentzat, hau baita da gure seme-alaben adina hain zuzen ere.

**2007-04-13**  
**IPURDITXO BIHURRITXO**

**IDAZLEA:** JOSÉ LUIS CORTES/AVI

**ARGITALETXEA:** S.M. (Pirata saila)

**LABURPENA:** Zesar Ponpeioren ipurdibko potzoloitxo nazkatuta dago hainbeste ipurdiko jasotzeaz. Horregatik, egun batean alde egin zuen ipurdibkoak, eta haurra ipurdibko gabe gelditu zen. Axola al zitzaien? nola moldatuko zen?

**Loturak**

- ◆ Irakurle gaztekoen bloga
- ◆ Juul gunea
- ◆ Galtzagorri elkarte

Gurasoen bloga

- Ikastetxetik kanpoko kultura ekimenen berri izan; irakurzaletasuna garatzeko jarduerarik erabilgarri eta interesgarrienak hautatu, eta ikasleen partaidetza bultzatu eta familien laguntza proposatu.



- Familiei erakundeek bultzatutako ekimenen berri eman, bertara daitezten edota parte har dezaten (udal liburutegiak, liburuekin edo literaturarekin erlazionatutako erakusketak...).

## IKASTETXEKO IRAKURKETA PLANA EGITEKO GIDA

### Sarrera


Ikasleei irakurtzeko gaitasuna garatzen laguntzeko, ikastetxean hartuko diren erabaki guztiak dokumentu sinple eta erabilgarri batean jaso behar dira, betiere ikastetxeko beste dokumentuetan, hala nola, Hizkuntz Proiektuan, Hizkuntz Normalkuntza Proiektuan, Hobekuntza-Planetan ... hartutako erabakiak kontuan harturik.

Ikastetxeak onartu eta bere egin behar ditu Irakurketa Planak jasoko dituen erabaki guztiak. Horregatik, garrantzitsua da prozesua diseinatzea (diagnostikoa, idazketa, garapena eta ebaluazioa), hartuko diren erabakien inguruko eztabaida bultzatzeko eta, hala, akordioetara iristeko.

### Irakurketa Planaren egitura

Irakurketa Planaren helburua da ikasleek irakurtzeko gaitasuna hobetzea eta irakasleen eta eskola-elkartearen irakurketa-praktikak bideratzen laguntzea. Ez da, beraz, dokumentu isolatua izan behar baizik eta Ikastetxeko Plan Estrategikoarekin lotu behar da.

Dokumentuaren egiturak honako atalak izan beharko lituzke:




1. txantiloia adibide moduan erabil daiteke Irakurketa Plana idazteko.  
(Eranskina).

## Antolaketa

Zuzendaritza taldeak har dezake antolaketaren eta egitekoen planifikazioaren ardura, klaustroa osorik inplika dadin eran, bai Irakurketa Planaren ingurukoak eztabaidatzen, bai bertan jasotakoak gauzatzen.

Komenigarria da irakasle lan-talde txiki batek hasierako proposamena garatzea eta, ondoren, ikastetxeko beste kideek horren gainean eztabaidatu eta erabakiak hartzea. Talde hori Pedagogi Batzordea izan daiteke edo ikastetxean dagoen beste antzeko lan-talderen bat. Nolanahi ere, ikastetxeko etapa-koordinatzaileek eta departamentu buruek parte hartu beharko lukete, bai eta liburutegi- arduradunak ere.

Bestalde, ikastetxeak Irakurketa Plan horretan ezarriko dituen helburuak gauzatze aldera abiaraziko dituen jarduera guztiek arduradunak izan behar dituzte, bai jarraipena egiteko bai adostutako jarduera horien betetze-maila egiaztatzeko. Arduradunak klaustroko kideak izatea komeni da, Irakurketa Plana ikastetxe osoari dagokion egitasmoa baita.



## Faseak

### 1. fasea: Praktikaren gaineko gogoeta. Diagnostikoa

Ebaluazio Diagnostikoa edota beste edozein ebaluazio, bai barrukoa bai kanpokoa, izan daiteke irakurketaren inguruko lan partekatua egiten hasteko abiapuntua eta, hartara, ikastetxean egiten diren irakurketa-praktiken alderdi onak eta hobetu beharrekoak antzemateko.

Ikastetxearen egoeraren diagnosirako, honako alderdiak har daitezke kontuan:

- Irakasgai guztietan zer-nolako praktika didaktikoak egiten diren ikasteko irakurketa garatzeko.
- Irakasgai guztietan zer-nolako praktika didaktikoak egiten diren irakurtzeko zaletasuna garatzeko.
- Eskola liburutegian ikasteko eta irakurzaletasuna garatzeko zer-nolako jarduerak egiten diren eta zer erabakiak hartu diren aztertzea.
- Familien eta inguruko erakundeen parte-hartzeari lotuta, zer nolako jarduerak proposatzen diren eta nolako erabakiak hartu diren aztertzea.

Ikastetxeak alderdi horiei guztiei edo bati, soilik, ekiteko erabakia har dezake, betiere, bere beharrianak eta ezaugarriak (tamaina, ikasle-irakasle kopurua ...) kontuan izanik. Fase hau bukatzeko, ikastetxeak Irakurketa Planean garatuko dituen lehentasunezko bizpahiru jarduera-esparru hautatuko ditu.

Irakurketa Planean jasoko dituen erabakietan hobe da kantitateari baino helburuen garrantziari eta eraginkortasunari lehentasuna ematea.

Irakurketa-praktiken analisisa egiten laguntzeko 2. txantiloia proposatzen da (Eranskina).

### 2. fasea: Irakurketa Plana idaztea

Ikastetxeak irakurmena sustatzeko egiten dituen praktika onak eta hobetu behar dituen alderdiak identifikatu eta zein esparrutan jardungo duen erabakita, plan errealista bat zehaztu behar du, ikastetxeko ohiko praktiketarik gehiegi urrunduko ez dena, ikastetxe osoak onartu eta aplikatu dezan bermatzeko.



Bestalde, proposatuko den Irakurketa Plana moldagarria eta aldagarria izan behar da, unean uneko zenbait aldaketari eta alderdiri egokitzeko.

Gutxienez, honako atalak izan behar ditu:

- **Helburuak.** Argiak eta zehatzak izan behar dira eta eskola-elkarteko kide gehienak inplikatu behar dituzte. Komeni da, bestalde, gehiegi ez izatea, eta hartara, erraz moldatu, egokitu eta ebaluatzeko aukera ematea.

Helburu horiek lortze aldera, lehendabizi kontuan hartu behar da zeintzuk diren ikastetxearen antolaketa eta prestakuntza beharrak.

- **Jarduerak.** Zer helburu hautatu den kontuan izanik, hori lortzeko jarduerak proposatuko dira: dokumentu honetan iradokizun eta orientabide gisa bildutakoak zein eskola-elkartek proposa ditzakeen beste batzuk. Hautatuko diren jarduerak eta ekintzek aplikazio- eta burutze-epe desberdinak izan ditzakete:

- Epe laburrean edo berehala gauza daitezkeen jarduerak. Esaterako, ikasgai guztietan astero ordu erdiko irakurraldia proposatzea.
- Epe ertainean edo ikasturtean zehar gauza daitezkeenak. Esaterako, hiru hilerik behin literatur solasaldi bat egitea.
- Epe luzean gauzatuko direnak edo ikasturte bat baino gehiago beharko dituzten jarduerak. Esaterako, liburutegiaren liburu funtsa handitzea.

Jardueretan, bestalde, beste datu batzuk ere zehaztu behar dira:

- Jarduera-arduradunak. Ahal izanik, jarduera bakoitzeko bat, klaustrokide guztien inplikazioa lortzeko.
- Antolakuntzari lotutako erabakiak: espazioak, tokiak, denbora...
- Jardueren eta ekintzen ebaluazioa: Irakurketa Planaren ebaluazioa eta erabakiak berraztertze prozedurak.
- Denbora epeak: lan-egutegia.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak (ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak).

### 3. fasea: Irakurketa Plana garatzea

Irakurketa Planaren fase honetan, ikastetxeak hartu dituen erabaki guztiak abiarazi egin behar dira. Komenigarria da jardueren ardura duten irakasleek, aldiro, erabaki horien garapen-maila aztertzea eta, hala behar izanez gero, aldaketak edota egokitzapenak proposatzea.

Tresna gisa, [Ikastetxearen Urteko Plana eta Urteko Memoria egiteko gida](#) dokumentuko 8. puntuko txantiloia egokitu eta erabil daiteke (*Urteko planaren garapenaren jarraipena* izenekoa)<sup>16</sup>.

### 4. fasea: Ebaluazioa

Irakurketa Planak ebaluazio prozesua behar du fase guztietan, aurreikusitakoa ondo betetzen ari dela egiaztatzeko eta, hala behar balitz, jarduerak egokitzeko edo moldatzeko.

Halaber, jardueren inplementazio epea amaituta, azken ebaluazioa egin behar da, aurreikusitakoaren betetze-maila aztertzeko. Ebaluazioan, bestalde, komeni da inplikaturako guztien iritziak jasotzea, hau da, familiena, planaren garapenean eragin zuzena izan dutelako; irakasleena, irakurketa-planean jasotako erabakiak eta jarduerak abiarazi egin dituztelako eta, ikasleena, irakurketa-planaren hartzaile nagusiak izan direlako. Azkenik, ikasleen irakurtzeko gaitasunaren hobekuntzak berak egiaztatuko du ikastetxearen Irakurketa Planaren baliagarritasuna.

Dokumentu horrek, ikastetxean sortzen diren beste agiri guztiek bezala, dinamikoa izan behar du; ebaluazioak, beraz, erabakiak gaurkotzeko eta moldatzeko aukerak eman behar ditu.

Azkenik, Irakurketa Planaren ondorioz sortuko diren baliabideak, materialak, lan-proposamenak ... antolatu, bildu eta eskuragarri jarri behar dira irakasle berriek ezagutzeko eta ikastetxean hurrengo ikasturteetan berrerabiltzeko.

<sup>16</sup> [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-inspcont/eu/contenidos/informacion/comunicaciones\\_centros/eu\\_inspec/adjuntos/Pub\\_EJ\\_pac\\_memoria\\_eusk.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-inspcont/eu/contenidos/informacion/comunicaciones_centros/eu_inspec/adjuntos/Pub_EJ_pac_memoria_eusk.pdf)

### 1. txantiloia. Irakurketa Plana idaztea (jarduera esparru bati lotutako adibide baten zirriborroa)

<p><b>Jarduera-esparrua:</b> Familiekin lankidetzatza</p> <p><b>Helburua:</b> tutoretza saioetan irakurketaren inguruko informazioa helaraztea.</p>
---

Jarduerak	Denbora-epeak eta arduradunak	Baliabideak	Ebaluazioa
Irakurketaren garrantziaren eta ikasteko duen garrantziaren inguruko protokoloa prestatzea.	1. hiru hilekoa Orientatzailea eta tutoreak	Baliabideak zehaztu: ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak	Prozesua: Protokoloa egin da Azken ebaluazioa: Protokoloa helarazi zaie familiei
Seme-alabei eskolako lanak egiten laguntzeko jardueren zerrenda prestatzea	1. hiru hilekoa Orientatzailea eta mintegi buruak	Baliabideak zehaztu: ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak	Prozesua Azken ebaluazioa
Familian irakur daitezkeen liburu gomendatuen zerrenda prestatzea	2. hiru hilekoa Mintegi buruak eta liburutegi-arduraduna	Baliabideak zehaztu: ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak	Prozesua Azken ebaluazioa
Ikastetxeko web gunean ikasgaiei lotutako irakurgaiak proposatzeko gunea eskaintzea.	Ikasturtean zehar Zuzendaritza taldea	Baliabideak zehaztu: ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak	Prozesua Azken ebaluazioa

## 2.1. txantiloia. Irakurketa-praktiken analisisia

IKASTEKO IRAKURRI	Hizkuntzakoak ez diren irakasgaiak	Ikastetxean ez da hartu inolako erabakirik ikasteko irakurketari laguntzeko.	Ikasteko irakurketari laguntzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu.	Ikasteko irakurketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi egin dira.	Irakasgai guztietan modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da ikasteko irakurketa.
	Hizkuntza irakasgaiak	Hizkuntza irakasgaietan ez da ikasteko irakurketari laguntzeko inolako erabakirik hartu.	Ikasteko irakurketari laguntzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu.	Ikasteko irakurketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu dira eta abiarazi egin dira.	Ikastetxean lantzen diren hizkuntza guztietan modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da ikasteko irakurketa.
	Eskola liburutegia	Liburutegia ez da erabiltzen aurrez programatutako ikasketajarduerarik gauzatzeko.	Lantzean behin egiten dira liburutegian ikasketajarduerak.	Liburutegia sarritan erabiltzen da ikasteko jarduerak gauzatzeko, baina modu ez sistematizatuan.	Liburutegia ikasteko jarduerak burutzeko erabiltzen da irakasleekin koordinaturik.
IRAKURZALETASUNA GARATU	Hizkuntzakoak ez diren irakasgaiak	Ez da planteatu irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerarik hizkuntzakoak ez diren irakasgaietan.	irakurzaletasunari laguntzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu.	irakurzaletasunari laguntzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi egin dira.	Irakasgai guztietan modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da irakurtzeko zaletasuna.
	Hizkuntza irakasgaiak	Ez da planteatu irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerarik hizkuntza irakasgaietan.	Hizkuntzetan zenbait jarduera egiten dira baina hizkuntzen arteko koordinaziorik gabe.	irakurzaletasunari laguntzeko erabaki batzuk hartu dira eta abiarazi egin dira, Hizkuntzen arteko koordinazioa egiteko ahaleginak hasi dira..	Hizkuntza irakasgaietan koordinaturik eta modu planifikatuan lantzen da irakurtzeko zaletasuna.
	Eskola liburutegia	Liburutegia ez da erabiltzen irakurzaletasuna garatzeko helburuz programatutako jarduerarik gauzatzeko.	liburutegian lantzean behin egiten dira irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerak.	Liburutegia sarritan erabiltzen da irakurtzeko zaletasunari lotutako jarduerak garatzeko, baina modu ez sistematizatuan.	Liburutegia irakasleekin koordinaturik erabili ohi da.
<b>FAMILIEN PARTE-HARTZEA</b>		Ez da familiekin inolako loturarik ezarri, irakurtzeko gaitasunari laguntzeko helburuz.	Noizik behin familiei informazioa helarazten zaie irakurtzeko gaitasunari laguntzeko.	Modu planifikatuan eskaintzen dira irakurtzeko gaitasunari lotutako orientabideak.	Familiei orientabideak emateaz gain, parte hartzeko aukera ematen zaie bai ikasgelan bai liburutegian antolatzen diren jardueretan.
<b>INGURUAREKIKO LOTURA</b>		Ez dira kontuan hartzen inguruak eskaintzen dituen aukerak irakurketa bultzatzen laguntzeko.	Noizik behin kontuan hartzen dira inguruak ematen dituen aukerak irakurtzeko gaitasunari laguntzeko.	Inguruan dauden erakundeek eskaintzen dituzten ekimen guztietan parte hartzeko ahalegina egiten da.	Inguruko jarduera eta ekimenetan parte hartzen da eta erakundeek ikastetxean parte hartzea ere bultzatzen da.
<b>IRAKURKETAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA</b>		Azken urteotan, klaustroak ez du irakurketaren inguruko prestakuntzarik jaso.	Zenbait irakaslek oraintsu jaso dute irakurketaren inguruko prestakuntza.	Klaustrokide batzuek parte hartu dute irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan.	Klaustroak parte hartu du irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan.

## 2.2.txantiloia. Irakurketaren inguruko praktika didaktikoen analisia: Emaizak

	Ondo egiten dena	Hobetu beharrekoa
<b>IKASTEKO IRAKURRI</b> Hizkuntzakoak ez diren irakasgaiak Hizkuntza irakasgaiak Eskola liburutegia		
<b>IRAKURZALETASUNA GARATU</b> Hizkuntzakoak ez diren irakasgaiak Hizkuntza irakasgaiak Eskola liburutegia		
<b>FAMILIEN PARTE-HARTZEA</b>		
<b>INGURUAREKIKO LOTURA</b>		
<b>IRAKURKETAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA</b>		

Aurreko analisiaren arabera, honakoak dira ikastetxearen lehentasunezko jarduera-esparruak:

- 1.
- 2.
- 3.

## 3. txantiloia. Ebaluazioa

Helburua:				
	Betetze maila	Eraginkortasuna	Alderdi azpimarragarriak	Hobetu beharrekoa
1. jarduera				
2. jarduera				
3. jarduera				

## BIBLIOGRAFIA GOMENDATUA

ARELLANO, V. (2002): *Liburutegia eta ikaskuntza autonomoa*. Nafarroako Gobernua. Blitz 3.

[http://dpto.educacion.navarra.es/bibliotecasescolares/eublitz\\_files/Blitzverde3eusk.pdf](http://dpto.educacion.navarra.es/bibliotecasescolares/eublitz_files/Blitzverde3eusk.pdf)

CASSANY, D. (2006): *Tras las líneas. Sobre la lectura contemporánea*. Argumentos 341. Anagrama, Bartzelona.

CASSANY, D. (2009): *Prácticas letradas contemporáneas*. (hitzaldia bideoan)

<http://www.leer.es/wp-content/uploads/webcast/pagina02.html> (2011ko abenduan berrikusia)

DELMIRO COTO, B. (2003): *La escritura creativa en las aulas . En torno a los talleres literarios*. Biblioteca de textos, 173. Graó, Bartzelona.

DURBAN ROCA, G. (2010): *La biblioteca escolar, hoy. Un recurso estratégico para el centro*. Biblioteca de Aula 273. Graó, Bartzelona.

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA SAILA (2010) *Irakurketaren irakaskuntza*

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43->

[573/eu/contenidos/informacion/dia6/eu\\_2027/adjuntos/RecursosParaLaInclusion/ensenanza\\_lectura\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/RecursosParaLaInclusion/ensenanza_lectura_e.pdf)

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA SAILA (2009) *El profesorado ante la enseñanza de la lectura*. Gobierno Vasco, Departamento de Educación.

GARCÍA ANDRÉS. M.A (2008): *Irakurtzea eta idaztea Interneten garaian*.

Nafarroako Gobernua. Blitz 11.

[http://dpto.educacion.navarra.es/planlectura/documentosdeinteres\\_files/BLITZamar11eusk.pdf](http://dpto.educacion.navarra.es/planlectura/documentosdeinteres_files/BLITZamar11eusk.pdf)Eusko

INSTITUTO DE EVALUACIÓN (2010): *La lectura en PISA 2009. Marcos y Pruebas de la Evaluación. 2009*. Ministerio de Educación. Secretaría de Estado de Educación y Formación Profesional.

<http://www.educacion.gob.es/dctm/ievaluacion/internacional/lectura-en-pisa.pdf?documentId=0901e72b8072f8d9>

ISEI-IVEI. (2011): PISA 2009 *Euskadi. 2. txostena: Aldagaien azterketa eta ikasleen irakurketako emaitzan duten eragina*.

<http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2009/PISA2009-2txostena-aldagaien-azterketa.pdf>

NAFARROAKO GOBERNUA HEZKUNTZA SAILA (2010) *Irakurketa Hobetzeko Plan Instituzionala*.

<http://dpto.educacion.navarra.es/materialespiml/inicio.html>

[http://dpto.educacion.navarra.es/formacionprofesorado/index.php?option=com\\_content&view=article&id=44&l](http://dpto.educacion.navarra.es/formacionprofesorado/index.php?option=com_content&view=article&id=44&l)

MATA ANAYA, J. (2008): *Animación a la lectura .hacer de la lectura una practica feliz, trascendente y deseable*. 10 Ideas clave. Graó, Bartzelona.

MORENO, V.: (2003) *Leer con los cinco sentidos*. Pamiela, Iruñea.

MORENO, V. (2003): *Zertarako irakurri? Ulertzeko*. Nafarroako gobernua. Blitz4  
[http://dpto.educacion.navarra.es/planlectura/documentosdeinteres\\_files/Blitz4ameusk\\_1.pdf](http://dpto.educacion.navarra.es/planlectura/documentosdeinteres_files/Blitz4ameusk_1.pdf)

PENNAC, D. (1993): *Como una novela*. Anagrama, Bartzelona.

SANCHEZ MIGUEL, E. (2010): *La lectura en el aula*. Crítica y Fundamentos 27. Graó, Bartzelona.

SOLÉ, I. (1992): *Estrategias de lectura*. ICE 137. Graó, Bartzelona.

ZAYAS, F. (2009): *Leer en la red*

[http://docentes.leer.es/files/2009/05/art\\_prof\\_ep\\_eso\\_leerenlared\\_felipezayas.pdf](http://docentes.leer.es/files/2009/05/art_prof_ep_eso_leerenlared_felipezayas.pdf)

ZAYAS, F. eta PÉREZ ESTEVE, P (2007): *Competencia en Comunicación Lingüística*. Alianza Editorial, Madril.

## IRAKURKETARI BURUZKO WEB ATARIK

- Eskola Liburutegiak, ACEX programa: <http://www.profacex.org/acex/bibliotecas.htm>
- Fundación Germán Sánchez Ruipérez: <http://www.fundaciongsr.es/>
- Galtzagorri Elkarteak: <http://www.galtzagorri.org/euskara>
- Leer.es: <http://leer.es/>
- PLEC. Proyecto de lectura para centros escolares: <http://www.plec.es/>
- SOL. Servicio de Orientación a la lectura: <http://sol-e.com/>